
euskara ikasten ari garenon aldizkaria

HABE

177. Zenb. 1990.eko ekainaren 15ekoa 250 pzta./13 libera(B.E.Z. barne)



SANTI ONAINDIA: «EUSKALDUNAK EZ GARA GOITIK BEHERA EZER ONTZAT HARTZEKO»

LOGSE, hezkuntzan ere Europara bidean?

Zein hondartzatara goaz?



MIKEL NIETO

❷Mikel Nieto gaztea markinarra da. Mutrikuko eskola batean zeramika **irakasten** du: «Astean bi-hiru egun **ematen** ditut. Ez da diru asko, baina... Gero handik eta hemendik lantxo bat edo beste egiten dut. Ikasle gutxi daude. Iaz ikasle **dezente** izan zen, baina, badakizu, jendeak beste lan bat du, denborapasa bezala hartzen du, eta utzi egiten du».

Mikelek berak muralak egiten ditu, zeramikazko muralak. Markinarrak Gipuzkoan eta Katalunian ikasi du batez ere: «Markinako Arte Eskolan hasi nintzen irakasle batekin, gero Gironan izan nintzen **ikastaro** bat egiten. Galizan ere badago tradiziorik, eta Deban. Debako eskolan hiru urte pasatua naiz ikasten».

Mikelek txikitan egurra **lantzen** zuen: «Gero, **buztina** ikutu nuen, eta gustora sentitu nintzen». Mikelek, beste artista batzuekin sei-zazpi bat **erakusketatan hartu du esku** eta hirutan **bakarka**: «Markinan, Mutrikun eta Gernikan. Azkena, Gernikakoa izan da, iazko abendukoa. Orain hiru-lau bat mural ari naiz prestatzen... Bai. Denak figuratiboak dira. Orain transizio-garai batean nago, neure gustoko formak aurkitu nahi ditut, materialak...neure buruarekin borrokan ari naiz pixka bat». ❑



ARGAZKIA: S. YANIZ

IRAKATSI.– *Enseñar.*
EMAN.– *Iragan, pasa.*
DEZENTE.– *Franko, asko.*

IKASTARO.– *Curso.*
LANDU.– *Jorratu. Trabajar, cultivar.*
BUZTIN.– *Arcilla.*

ERAKUSKETA.– *Exposición.*
ESKU HARTU.– *Parte hartu. Participar.*
BAKARKA.– *En solitario.*

6 **SANTI ONAINDIA: «Euskaldunak ez gara goitik behera ezer ontzat, hartzeko»**

Zornotzako larogeitabi urteko karmeldar honi berriki aurtengo Euskal Letren Merezimenduzko Saria eman diote. Lana ugari egin du euskararen alde, Euskaltzaindiaren bideari ondo irizten ez badio ere.

18 **LOGSE, HEZKUNTZAN ERE EUROPARA BIDEAN? (I)**

Bi zenbakitan jorratuko dugu gai eztabaidagarri hau. Lehenengo honetan, lege-egitasmoaren nondik-norakoak azalduko dizkizuegu; bigarrenean, berriz, zenbait iritzi eskainiko.

21 **ZEIN HONDARTZATARA GOAZ?**

Iritsi da azkenean aurten ere hondartzarako denboraldia.Baina, bainatzen hasi aurretik, komeni da ura garbi dagoen jakitea. Izan ere, hondartza askotako urak ez ditu gutxieneko osasun-arauak betetzen.

26 **ANTXOA ETA HEGALUZEARI LATA EMATEN**

Garai batean, arrain-mota dexente kontserbaratu arren, orain antxoa eta hegaluzea besterik ez dira sartzen latetan.

12 HARTUKO AL ZENUKE PILULA?

30 HILTZEN LAGUNTZEN

36 «ZOKOMIRAN»: KONTXU ODRIOZOLA

HABE

HABE, Euskara ikasten ari garenon aldizkari mailakatua.
ARGITARATZAILEA:
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.

©Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra.HABE.

177-HABE

Idazketa Batzordea:
Iñaki Ugalde
Pello Esnal
Gurutz Larrañaga
Boni Urkizu
Zuzendaria:
Alex Mungia
Erredakzioa:
Asis Eizmendi
Jon Imanol Iturrioz
Eskarne Lopetegi
Gema Loinaz

Marrazkigilea:
Enrike Larrarte
Tel. (943) 42 91 20
Moldaketa eta eraketa:
ITXAROPENA,S.A.
Araba kalea,45
20800-ZARAUTZ
Legezko gordailua:
BI-2251/81
ISSN: 0212-6788

HABE
HARPIDETZA-ORRIA
euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:
HABE aldizkaria
Andia, 13-1.
20004 - DONOSTIA

Izen-deiturak: .....
Kalea: ..... Zenbakia: .....
Herria: ..... Probintzia: .....
HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hogeitabi ale: 3.470 pezeta).
Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez.
Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa .....
Sukursala .....
Zenbakia .....

PERPAUSEN ERABILERA




❸Askotan galdetzen diogu geure buruari, ea nola erabil daitekeen **atzizki** hau, edota non joan beharko lukeen beste posposizio horrek. Hauek eta antzeko galderek, Benja Aurrekoetxea eta Josu Armaolea «Euskararen ikaskuntzarako PERPAUSEN ERABILERA» egitera bultzatu dituzte.

Liburua oso modu erabilgarrian **egituratuta** dago. Alde batetik, «Perpausa mota desberdinetako **ezaugarrien** alfabetiko **aurkibidea**» eta bestetik, «Perpausa mota desberdinak» atala aurkezten dizkigute, bigarren honetan, perpausak **banan-banan** hartuz eta hauen erabilera azalduz, jarraian, adibide batzuk emateko. **Hitzaurrea** Lino Akesolorena da eta, honek oso poliki dioen bezalaxe, «euskera jatorra eta aberatsagoa egiteko, badugu zer ikasi eta zertan geure buruak jantziago egin».

Egileek berriz, zera diote: «beronek (lanak) ez daukala **xedetzat** perpausen **azterketa** sakon bat egitea (...).Gure asmoa lehen laguntza bezala ikusi dugu, hau da, zure eta lan sakon horien arteko hutsunea betetzekoa hain zuzen ere».

Zuzenketen arduradunak: Lino Akesolo eta Patxi Uribarren.

GRAMATICA DIDACTICA DEL EUSKERA



❸ Benetan lan **itzela** Ilari Zubirik egin duena. HABEren Glotodidaktika--Zerbitzuak zuzendu duen liburu honek **oinarrizko gramatika** bat nahi du izan, ez eredu bat. Gramatika hau euskara ikasten ari denari zuzenduta dagoenez, helburua gramatika atsegin eta didaktikoa egitea izan da, ahal den neurrian, teknizismoak **baztertuz.**

Lan honetan gramatikaren arloak **jorratzen** dira: fonetika, morfologia, sintaxia...

Esparru bakoitzaren barnean, **atalik** nagusienak lantzen dira, liburuaren atal bakoitzaren egitura orokorra honako hau delarik:

-azalpena; adibide askok osatuta.

-laburpena: kapituluaren edukiaren sintesia.

-ohizko erroreak: okerren zerrenda eta hauen zuzenketa.

Ikus daitekeenez, egitura zeharo didaktikoa.

Bestalde, hitzaurrean adierazten zaigu Euskaltzaindiak **arautu** ez dituen gaien aurrean, formarik **hedatuenak** eta errazenak **hautatu** dituztela. Hala eta guztiz ere, aukèra bat baino gehiago aipatzen denean, gainontzekoak, edo hedatuenak behintzat, kontuan hartzen direla azaltzen digute.

Eskuartean edukitzea merezi duen liburua, erabilgarria eta **mamitsua** bait da.

ATZIZKI.– *Sufijo.*
EGITURATU.– *Antolatu, tajutu.*
EZAUGARRI.– *Adierazgarria, berezitasuna. Característica.*
AURKIBIDE.– *Indice.*
BANAN-BANAN.– *Banaka. De uno en uno.*
HITZAURRE.– *Prólogo.*
XEDE.– *Helburua, jomuga.*
AZTERKETA.– *Ikerketa. Análisis.*
ITZEL.– *Handia, gaitza.*
OINARRIZKO GRAMATIKA.– *Gramática básica.*
BAZTERTU.– *Alboratu, saihestu.*
JORRATU.– *Landu. Trabajar, cultivar.*
ESPARRU.– *Alorra, eremua. Ambito, campo.*
ATAL.– *Zatia. Parte.*
ARAUTU.– *Reglamentar.*

EUSKALDUNTZE-ALFABETAGINTZAREN I. IHARDUNALDIAK

❸Joan den hilean amaiera ematen zitzaien Leioan, EKBk bi egunez antolatutako lehen ihardunaldiei. Hogeitabost urte betetzen dira gure herriaren euskalduntze eta alfabetatze-prozesua hasi zela. Baina hau da lan honetan aritzen diren euskaltegi, elkarte eta **erakundeak** gai honen gainean hitz egiteko **biltzen** diren lehenengo aldia.



Behar-beharrezkoa da euskalduntze--alfabetatzearen plana birmoldatzea

AEK, Altza, Monpas, Ortzadar, Ricardo Arregi, Elkarlan, HABEko zenbait irakasle, Hegoalde, HEI, Hitzez, Ikastari, Ilazki, Labayru, Legazpi 6, Maizpide, Ulialde, eta Algorta, Areeta, Durango, Erandio, Ermua, Irun, Mungia, Muskiz, Oñati, Santurtzi, Tolosa eta Zornotza udal euskaltegietako ehun bat **ordezkarik** parte hartu **zuten** bi egunetan zehar luzatu ziren lehenengo ihardunaldi hauetan. EKBk historikoa deritzo gertakizun honi beren arteko iritzi ezberdinen gainetik, denok elkarlanaren alde azaldu direlako. Alde batetik, gaur egungo egoerara ekarri gaituzten faktoreak aztertu zituzten, elkarte hauen artean orain arte eman den koordinaziorik eza **azpimarratuz**.

Beharrik premiazkoenak

Azpimarragarriena, motibazioa areagotu beharra izan zen, azken urteotan **matrikula-kopuruen** beherakada nabaria izan bait da. Baina, beste eztabaidagaiak ere izan ziren. Alde batetik, **salbuespenak salbuespen**, alfabetagintzaren esparruan dagoen hutsune nabaria azaldu zuten. Bestetik, euskalduntze- alfabetatze-lanean aritzen direnak **sakabanatuta** aurkitzeak ekar ditzakeen ondorioak aztertu zituzten. Azkenik, euskara ikasteko eskubideak **ziurtatzeko** baldintzak ez direla ematen salatu zen. Gauzak horrela, euskalduntze-alfabetagintzaren plangintza **birmoldatu** beharra azpimarratu zen eta horretarako behar-beharrezkoa dela instituzioen laguntza.

Hogeitabost urteren buruan, lehenengo bilera

Irakaslegoaren prestakuntzari ere garrantzi handiagoa eman behar zaiola begibistakoa dela diote. Ihardunaldien **emaitzak** jasotzen dituen txostenaren amaieran dioten bezalaxe, «gizarte osoari dei egin nahi diogu euskara ikas eta erabil dezan, eta euskararen kontrako **eraso** guztiak sala ditzan».❑

HEDATU.– *Zabaldua. Difundido.*
HAUTATU.– *Aukeratu, bereizi.*
MAMITSU.– *Eduki askokoa. Sustancioso.*
IHARDUNALDI.– *Jornada.*
ERAKUNDE.– *Instituzioa.*
BILDU.– *Reunir.*
ORDEZKARI.– *Representante.*
AZPIMARRATU.– *Subrayar.*
MATRIKULA-KOPURU.– *Número de matrículas.*
SALBUESPENAK SALBUESPEN.– *Salbuespenak aparte.*
SAKABANATU.– *Desparramar, dispersar.*
ZIURTATU.– *Asegurar.*
BIRMOLDATU.– *Reestructurar.*
EMAITZA.– *Emaria. Resultado, fruto.*
ERASO.– *Ataque.*

SANTI ONAINDIA: «EUSKALDUNAK EZ GARA GOITIK BEHERA EZER ONTZAT HARTZEKO»



❸Zornotzako Larrean, karmeldarren komentuan, gure zain genuen goiz hotz eta **euritsu** hartan. Inguruko mendien argazkiz inguratutako porteriaren ondoko gelan luze mintzatu ginen, Santi **hitz-jario** handiko gizona bait da. Oinak erabat hoztuta irten ginen handik, **berogailua** itzalita zegoen eta. Hala ere, 81 urteko gizon hau ez zen kexu horregatik. Ezta argazkilariak, bere lana egiteko, **lorategian** orduerdiz eduki zuenean haize-bolada hotzen horzkada sufrituz . Santi gogorra da oso, ez bait zen alferrik ibili gudarien kapelau Bizkargi, Intxorta, Sollube eta beste zenbait mendi-**tontorretan**. Lanean ere ondo **zaildutakoa** da. Hirurogei liburutik gora idatzi ditu: **olerkiak**, literatur bildumak, itzulpenak, bertso-liburuak... Aldizkarietan ere sarritan azaldu dira bere idazlanak. Ez berak bidalitako guztietan, hala ere, batuan idazten ez duelako. Batuaren kontrakoa da, Euskaltzaindiak euskara **batzeko** erabili zuen bidearen kontrakoa, hobeto esan. Dena den, ez du itxaropenik galdu: «Hogei urte galdu dira batuaren zera honekin, baina uste dut aurrera egingo duela euskarak». Gurekin egon eta handik gutxira aurtengo Euskal Letren Merezimenduzko Saria eman diote.

ONTZAT HARTU.– *Onartu. Aceptar.*
EURITSU.– *Euri+tsu. Lluvioso. -TSU atzizkiak oparotasuna edo ugaritasuna adierazten du. Esate baterako: osasuntsu, iletsu, adintsu...*
HITZ-JARIO.– *Fluidez de palabra.*
BEROGAILU.– *Bero(tu)+gailu. Berotzeko tresna. Calefacción. Era berean: igogailu, hozkailu, garbigailu...*
LORATEGI.– *Jardín.*
TONTOR.– *Gailurra, erpina, gaina.*
ZAILDU.– *Curtir.*
OLERKI.– *Poesia.*
BATU.– *Bat egin. Unificar.*

HABE.- *Larreako komentuan 12 urterekin sartu eta berrogei urtetik gora egin dituzu bertan. Zeure idazlanik gehiena hemen idatziko zenuen, ezta?*

SANTI ONAINDIA.- Bai. Hemen egindakoa da. «Milla euskal olerki eder», nire lehenengo liburua, komentuko **nagusi** nintzenean egindakoa da. Hara eta hona ibiltzen nintzen, lan hori eginez.

H.- Horretarako, liburutegi ederra izango zenuen? Komentuetan liburu dezente izaten da...

S.O.- Berton baino gehiago, nik olerki horiek, olerki eta bertso-liburuak neurekin neramazkin. Eta, gero, hemen berton ere bai. Nire liburutegia hau baino handiagoa izango da. Literaturari buruzko liburuak dira. Eta ondoan dago komentuko liburutegia. Neure zeretatik kopia egin nuen. Eta hiru **xorta** handi idatzi nituen. Xorta horietatik onenak aukeratu nituen. Gero, egon nintzen Bilbon, Bizkaiko Diputazioan olerki-kontuan zer zegoen ikusten eta, gero, Donostian...(liburutegiz liburutegi bilketa-lanean egindako bidaia luzea zehatz-mehatz kontatu digu, lehenengo liburua, lehenengo seme-alaba bezala, gogoan izaten bait da).

Eta horretara egin nuen lan hori, eta hemen bildu. Gero, Itxaropenan, Zarautzen, argitaratu nuen. Liburu oso ederra irten zen, bai, «Milla euskal olerki eder», letra txikia, baina argia. Harrez gero ez dago horrelakorik.

H.- Zure bilduma-lanik hoberena da, ezta?

Azkenengo poesiak hor behetik dihoan erreka txikiaren ondoan egin nituen, urari begira»

S.O.- Bai. Bai. Harrez gero ez dut uste horrelakorik argitaratu denik. Orixek aipatzen zituen Azkueren hiztegia, Aita Donostiaren «Cancionero vasco»eta gero nire hau. Orain badakigu behintzat olerkietan hemen zer egon den eta zer dagoen. Oraindino ere lan asko dago egiteko. Baina liburu hau oinarri bat da.

Batua dela eta

*H.- Hainbeste urtetan euskararen inguruan lanean arituta, ez al duzu **etsipenik** sentitu euskararen arazoekin, nahaste-borrasteekin, Euskaltzaindiak bide batetik jotzea eta zuek beste batetik?*

S.O.- Etsipenik ez. Ni beti izan naiz horretan **baikorra**, eta orain nik uste dut gehiago. **Lelokeria** asko esaten dira, bakoitzak berea defenditu nahi eta. Euskaltzaindikoek esaten dute orain hor atzean gelditu diren lehengoak retrogradoak direla. Horiek aurrerakuntzarik ez dutela egiten. Nortzuk dira orduan aurrera egin behar dutenak, Euskaltzaindikoak eta beste batuzaleak ala lehengoak? Hori galdetzen dut nik.

H.- Zuen pentsakera da beste era batean sortu behar zela batua, ezta? Ez zineten euskara batzearen kontrakoak.



S.O.- Ez. Ni ez naiz. Nik idatzi nuen Arantzazun lan labur bat. Ni beti izan naiz horren zalea, alkartzeko zalea. Eta niri batzuek esaten zidaten horrelako zerbait asmatzeko. Baina ni ez naiz inoiz izan **horren borrokalaria**. Denbora alferrik galtzea **baino** ez da izaten. Orain ikusi Euskaltzaindikoak ere nola dabiltzan. Krutwig hor dabil, bide txarretik. Orduan zertan geratu gara? Eta Krutwig izan zen lehenengo hartan, Baionan egin zuten batzarrean, batuaren **defendatzailerik** handiena.

Hauek, Lekuonak eta, nahi zuten Azkueren gipuzkera osotu hori, Lekuonak eta besteok ere bai. Eta horretan ez dute ezer egin Euskaltzaindikoek. Aditza batu zuten, baina beste gauza asko egiteko daude oraindik.

Eta hor dago beste zera bat ere. Nik beti esan dut hau. Euskaldunak ez gara goitik behera ezer ontzat hartzeko. Inon ere ez, ez politikan, ez hizkuntzan, ez horrelako ezertan. Oraintxe, esate baterako, beste **istilu** bat izango da, eta batere **ganora barik** egon ere, euskarazko egunerokoa sortu behar dela eta. Kontu handiaz ez bagabiltz, herriak ez du erantzungo. Herria ez da hain batuzale, eta kostako da. Esate baterako, Elizbarrutian, Bizkaia eta Gipuzkoan eta gertatu dena. Boletina batuan idazten zuten, baina ikusi dute apaizek ez diotęla **jaramonik egiten** eta orduan zertarako? Eta orain hemengo boletina ez dute batuan idazten; bizkaieraz egiten da.


*H.- Bai. Baina batuaren aldekoak ari dira beren jarrera **hurbiltzen**. Ahozko euskara zaindu beharra dagoela esaten da behin eta berriz eta, beraz, bizkaiera eta beste euskalkiak ere **babestu** behar direla. Zuen aldekoa da hori, ezta?*

S.O.- Bai. Pentsakera ona da hori. Horrelako ulertzeko eta alkartzeko joera apur bat balego!...Etorriko da nik uste dut. Gero, idatzi ere, zer

NAGUSI.– *Superior.*
XORTA.– *Bilduma.*
ETSIPEN.– *Desesperanza.*
BAIKOR.– *Optimista. Aurkakoa: ezkor.*
LELOKERIA.– *Lelo+keria. Txorakeria. -KERIA atzizkiak akatsa edo kualitate txarra adierazten du. Esate baterako: nagikeria, barrokeria, gordinkeria...*

HORREN BORROKALARI.– *Tan luchador. Era berean: honen borrokalaria, hain borrokalaria.*
BAINO.– *Baizik, besterik.*
DEFENDATZAILE.– *Defenda(tu)+tzaile. Defensor. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: laguntzaile, aztertzaile, saltzaile...*

ISTILU.– *Sesioa, okasioa, liskarra.*
GANORA BARIK.– *Pulamenturik gabe.*
JARAMON EGIN.– *Kasu egin, aintzakotzat hartu.*
HURBILDU.– *Hurreratu. Aurkakoa: urrundu.*
BABESTU.– *Zaindu. Proteger.*



«Nire 'Milla euskal olerki eder' kaleratuz gero, ez dut uste horrelakorik argitaratu denik».

kostatzen da nork berean idaztea? Lehen egiten zen gerraurretik. Guk hemen, Zornotzan, Jainkozale Jaiki geneukan, Donostian Argia...Baina oraingo lelokeria barik bakoitzak idazten zuen zekien euskara. Eta orain hainbeste **eragozpen** jartzen dituzte «Hau batuan idatzi behar da» esanaz.

H.- Zergatik diozu hori? Egunkari eta aldizkarietan ez al dizkizute artikuluak onartzen?

S.O.- Ez dizkidate argitaratzen.

H.- Euskaragatik ala beste zerbaitengatik?

S.O.-Nik uste dut euskaragatik dela, bai. Gaur zera dago oso **errotua** -eta hori oso txarra da euskararen aurrerakuntzarako eta beste zerentzako-: neure eritziko ez bada, eta neure euskara ez bada, kito; isildu eta aurrera. Baztertuta gelditzen zara eta hori argi-argi ikusten da. Baina, nik badut non argitaratu. Nik badauzkat eta eduki ditut bi aldizkari. Bata, «Karmel», neuk sortu nuen hementxe, eta «Olerti». Baina, gero, «Zer»aldizkarian ere hilero-hilero idazten dut eta hor askatasun osoa ematen didate eta, gero, Euskarazaintzaren aldizkarian. Ez dut **astirik** izaten.

H.- Zenbat ordu lan egiten duzu egunean, ba?

S.O.- Batek badaki zenbat egiten duen! Gabaz ere joaten naiz, eta ondo, telebista ikusten baino pozago. Gero, nekatu edo egiten banaiz, oheratu egiten naiz, hamar t'erdiak inguruan. Baina, bestela, goizeko bederatzietarako hor egoten naiz lanean neure gelan.

Olerkariak? Lehengoak...

H.- Bilketa-lanean norberaren gustoko idazleak eta hain gustoko ez direnak ere aztertu behar izaten dira. Zuk gaur egungo olerkariak ez dituzu lehengoak bezain gustokoak, ezta?

S.O.- Ez dira iritsi ere egiten. Nik beti esango dut hori, eta Juan Mari Lekuonarekin elkarrizketa izan nuen hemen hori dela eta ez dela. Gaurko olerkarien artean bat neukan oso **gogoko**, Gaztelu eta, bestea, Juan Mari Lekuona. Juan Mariri behin esan nion gehiegi ez idazteko eta, idazten zuenean, ondo-ondo pentsatzeko, Lizardik egiten zuen bezala. Lizardiren lehenengo olerkiak ez dira hain onak, baina, gero egin zituen denak bai. Eta, batzuk, argitaratuta zeuzkanak ere, ez zituen bere bilduman sartu. Zergatik hori? Ez zirelako goi-mailakoak.

H.- Poesia zuretzat zer da gehiago, teknika ala sentimendua?

S.O.- Poesia niretzako zera da: hemen burua daukagu, bai, **adimena**, eta hemen bihotza edo nahimena. Ba bion elkartzea da.

H.- Baina zeinek agintzen du hor?

S.O.- Pentsamenduak. Pentsamenduari bihotzak ematen dio sua. Eta surik ez badauka, zeozer falta du. Poesia hori da. Nik azkenengo poesiak hor behetik zehar dihoan **erreka** txikiaren ondoan egin nituen, urari begira. Gero, behin, omenaldia egin zidatenean, esan zidaten gehiago ez idazteko.

H.- Zuk Lekuonari esandakoa, orduan.

S.O.- Bai, bai. Baina, norberak daki zer egiten duen.

ERAGOZPEN.– *Traba, enbarazua.*
ERROTU.– *Sustraitua. Enraizado.*

ASTI.– *Beta, denbora.*

GOGOKO.– *Gustukoa, atsegina.*
ADIMEN.– *Adi(tu)+men. Aditzeko ahalmena. Inteligencia. Era berean: entzumen, ulermen, ikusmen, nahimen...*
ERREKA.– *Riachuelo.*

Hogei urte galdu dira batuaren zera honekin, baina uste dut aurrera egingo duela euskarak»

H.- Zibilizazio materialista honetan ba al dago olerkarientzat tokirik?

S.O.- Ez dut uste. Joera handirik ez dago. Ez dakit zergaitik den. Beste hizkuntzetan ere ez. Espainian, esate baterako, García Lorca eta Machado eta horiek zeuden. Gaur badago horrelakorik? Eta Ameriketan Neruda eta horiek zeuden. Eta Frantzian bertan eta Europan ere **berdintsu**. Hemen, Euskal Herrian ere, gerraurretik askozaz gehiago zegoen. Lizardi zegoen, Lauaxeta zegoen eta beste hainbeste olerkari onak, Zaitegi eta hauek. Eta Aitzol zen Jakintza zuzentzen zuena, Donostian. Eta hor argitaratu zituen olerkiak. Berak antolatzen zituen euskal olerki-egunak urtero-urtero, lehiaketa moduan. Sariak ez ziren gauza handirik. Baina, orduan **amorrua** zegoen olerkiak idazteko. Gero, Lauaxeta afusilatu zuten. Lizardi hil zen eta Orixe bakar-bakarrik ibili zen Ameriketatik eta. Horien antzekorik ez da agertu barriz. Esango dute nahi dutena, baina nik beti esango dut hori.



ARGAZKIAK: GEMA M. ARRUGAETA

«Gerraurretik, oraingo lelokeria barik, bakoitzak idazten zuen zekien euskara».

Bertsolaritzan, ostera, badago bertsolari onik

*H.- Olerkigintzak bere **garairik** hoberena ez badu ere, badirudi bertsolaritza ez dagoela batere bolada txarrean. Gora eta gora doa, ezta?*

S.O.- Inoiz ere ez da egon hain ondo bertsolaritza. **Zaletasuna** ikusten da bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, Nafarroan eta mugaz bestaldetik ere bai. Eta kalitatea ere bai. Lehenago Kepa Enbeita genuen hemen oso ona eta Basarri. Orain, hauen ondoren asko etorri dira, onak gainera. Horrexegatik ospatzen dituzte hainbeste bertso-saio, eta tarteka bertsolari gazteenak ere bai.

*H.- Ez al da harrigarria bertsolaritzak hainbesteko **arrakasta** izatea gizarte urbano honetan? Baserri-giroan ez da harritzekoa, baina hirietan eta?*

S.O.- Barruan dago zerbait, bai baserrian, bai herrian, bai hirian. Gainera, baserritarrek hirietara jo dute. Baina ez dute bertsotan egiten euskara dakitelako bakarrik. Beste zerbait ere badago hor, barruko deia.

H.- Badago joera bat edadetutakoen artean lehengoa hobea zela esateko, beti iraganera jotzeko.


S.O.- Barruan badaukagu guztiok zeozer.

H.- Euskararen geroan ere bai? Euskara hemendik hogeitamar-berrogei urtera irtenbiderik gabe ikusten al duzu?

S.O.-Ni itxaropentsu nago euskararen geroarekin. Hogei urte galdu dira batuaren zera honekin. Baina, uste dut aurrera egingo duela euskarak. ❑


BERDINTSU.– *Berdin+tsu. Ia berdin. Era berean: honelatsu, bezalatsu, oraintsu...*
AMORRU.– *Grina, desioa, gura.*
GARAI.– *Sasoia, denbora.*
ZALETASUN.– *Afizioa.*
ARRAKASTA.– *Exito.*

HAU DA HAU



❷Person-Al izeneko alikantear injinieruak uretan ibiltzeko **tramankulu** benetan pertsonala asmatu du. Zenbateko **abiaduran** ibili, "ibiltari" bakoitzaren **trebetasunaren baitan dago**, eta pisuak ere badu **eraginik**.

Asmatzaileak dioenez, uretan "footing" ere egin daiteke. Anima zaitez! Baina, **lodi** xamar baldin bazaude, hobe duzu lehenik errejimentxoren bat egitea eta, gero, uretara!



EMAKUMEAK ERE BURUSOIL

❷Bai, bai. Ez pentsa libre gaudenik. Gizonezkoekin **parekatu** nahiak horrelako **ondorioak** ekartzen omen ditu.

Berrogei urte inguruko emakumeen %25ak alopezia du. Hala ere, **gaitz** honen barnean badaude **mailak**, baita erremedio-mota asko ere. Baina guzti hauen artean bat da **garaile**. Badirudi minoxidil %2tan erabiltzean dagoela **irtenbidea**. Baina kontuan izatekoa da, erabiltzen hasiz gero, bizitza osoan zehar erabili behar dela minoxidil delako hori. Bestalde, formula hau buruan **igurtzitzekoa** da, baina ezin dute erabili hipertentsioa edo bihotzeko gaitzak dituztenek. Horrelakoentzat **gomendagarriena**: peluka!

TRAMANKULU.– *Gailua. Máquina.*
ABIADURA.– *Velocidad.*
TREBETASUN.– *Abildadea, gaitasuna.*
BAITAN EGON.– *Depender de.*
ERAGIN.– *Influencia.*
ASMATZAILE.– *Inventor.*
LODI.– *Gizena. Gordo.*
BURUSOIL.– *Calvo/a.*
PAREKATU.– *Berdindu. Ponerse a la par.*
ONDORIO.– *Ondorena. Consecuencia.*
GAITZ.– *Gaixotasuna. Enfermedad.*
MAILA.– *Grado.*
GARAILE.– *Nagusia. Vencedor.*
IRTENBIDE.– *Solución.*
IGURTZI.– *Frotar.*
GOMENDAGARRI.– *Recomendable.*

URTERO 60.000 KATOLIKO PROTESTANTISMORA BIHURTU



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

❷Chicagoko **ikerkuntz zentru** batek egindako lan batetan **adierazten** denez, EEB-Betan bizi diren milioi bat hispaniar katoliko protestantismora aldatu dira. Eta, hispaniar protestanteak sei milioi baldin badira, hauetako %75a baptista egin da edo sekta fundamentalistetan sartu.

Katolikoen artean, %23a bakarrik joaten da **mezatara**, protestanteen %49a igandero-igandero joaten den bitartean.

ISILTASUNAREN BILA



❷Osasunerako Mundu-Erakundeak dioenez, **hiri** handietan bizi diren ehun eta hogeitamar milioi lagunek **kutsadura** akustikoa **jasaten** dute.

Gai hau ikertu dutenek, kotxeei **egozten** diete **errua**, hirietako kutsaduraren %80a kotxeek sortzen bait dute. Baina kotxeak ez dira errudun bakarrak, zenbait lantegik, tabernek eta, nola ez, diskotekek ere gure hiriak akustikoki kutsatzen dituzte. Gauzak horrela, Lausanako hirian, adibidez, polizia berezi bat **antolatu** dute kutsadura akustikoa kontrolatzeko.

OHARRA: Aldizkariaren 175. zenbakiaren 11. orrialdeko «Mojen bihurrikeriak» artikuluaren ondoko argazkian azaldu ziren bi erlijiosek ez dute inolako zerikusirik eman zen informazioarekin. Barka, beraz.

BIHURTU.– *Convertir.*
IKERKUNTZ ZENTRU.– *Centro de investigación.*
ADIERAZI.– *Aditzera eman, azaldu. Exponer.*
MEZA.– *Misa.*
ISILTASUN.– *Silencio.*
HIRI.– *Ciudad.*
KUTSADURA.– *Contaminación.*
JASAN.– *Nozitu, pairatu. Soportar.*
EGOTZI.– *Atribuir.*
ERRU.– *Kulpa.*
ANTOLATU.– *Eratu. Organizar.*

HARTUKO AL ZENUKE PILULA?

*❸Zenbat eztabaida, zenbat haserrealdi ez ote dira sortu **bikoteen** artean, azken hamar urteotan, pilula «antibaby» dela eta ez dela? **Gizonezkoak** andreari edo emaztegaiari pilula hartzeko esan eta honek ezetz erantzun, badela eta hainbeste ondorio txar ez duen metodorik. Horrela, ditxosezko pilula horrek egun ez du hainbesteko **arrakastarik.** Jose Gurrea ginekologoak dioenez, « pildora oso gutxi erabiltzen da, %10era ere ez da helduko». Gizonezkoentzat pilularik ez da oraindik kaleratu, baina **ikerketak** aurrera doaz. «Zortzi-hamar urteren barruan baliteke horietakoren batek aurrera egitea» dio José Luis García sexologo nafarrak. Gauzak horrela, pilula horrek zenbaterainoko arrakasta izango lukeen jakin nahi izan dugu. Telefonoz inkesta txiki bat egin dugu zenbait pertsonaia **ospetsuren** artean. Pilula hori hartzeko prest egongo ote liratekeen galdetu diegu, osasunerako ondorio txarren bat izan lezakeela gogoratuz. Hona hemen erantzunak.*



PATXI BISKERT (Aktorea)

«Beharrezkoa izatera, hartuko nuke, bai. Nik haurrak nahi ditut eta horregatik ez nuke hartuko. Baina haurrak nahi ez banitu, ez nuke **kezkarik** izango pilulak hartzeko. Ondorio sekundario-piska bat, emakumezkoen pildorak duen bezalaxe, edukita ere bai».



JUAN CARLOS PEREZ (Musikaria)

«Bai, gizona, bai! Lasai asko, gainera. Oso erraza da baietz esatea. Batzuetan gizonezkoak hartu eta besteetan emakumezkoak?...Ez dakit, ez dakit... Baina oraindik ikertzen ari dira, ezta?... Orduan ez dago arazorik!».

«Ondorio sekundario-**pittin** bat edukita ere, pentsatzen dut hartuko nukeela. Zera, ikertzen ari badira, ea ailegatzen diren hemendik hogei-hogeitamar urtera. Horrela pentsatzen dut guk ez dugula ia arazorik izango».



JOSE GURREA (Ginekologoa)

«Hartuko nuke, bai, batere buruhausterik gabe. Nolabaiteko ondorio sekundarioak edukita ere bai. Bizitzan gauza guztiek dituzte bigarren mailako ondorioak, baita ezkontzak berak ere. Ez dago ondorio gabekorik ezer».



XABIER SALDIAS (Musikaria)

«Nik uste dut baietz. Emakumeek nahikoa zera dute hor. **Zama** guztia eurek hartu dute orain arte. Eta, bueno, pildora hori sortuko balitz, prest egongo nintzateke hartzeko, baita basektomia egiteko ere. Pildorak osasunerako arrisku txiki bat izanda ere bai».



ANDU LERTXUNDI (Idazlea)

«Hartuko nuke, baldin eta mediku aldetik aztertuta balego pildora hori eta bigarren mailako ondoriorik ez balu. Orduan, bai, inolako **eragozpenik** gabe».

Emakumearenak ere izaten ditu bigarren mailako ondorioak eta, hala ere, hartu egiten ditu, ezta?...«Bai, baina zera gertatzen da: emakume batzuek hartzen dutela eta beste batzuek ez. Eta, hain zuzen ere, nik uste dut azken hamar urte hauetan emakumezkoen pildorak atzera egin duela bigarren mailako ondorioengatik. Askotan, behar bezala esperimentatu gabe egoten dira gorabehera horiek, eta emakumearenarekin horixe gertatu da. Alderdi horretatik, ez daukat eragozpenik, beti ere, baldin eta **ziurtatua** badago ez duela kalterik egiten».

PILULA.– *Píldora.*
BIKOTE.– *Bi+kote. Pareja. Era berean: hirukote, laukote...*
GIZONEZKO.– *Gizasemea. Varón.*
ARRAKASTA.– *Exito.*
IKERKETA.– *Iker(tu)+keta. Investigación. -KETA atzizkiak ekintza adierazten du. Esate baterako: moldaketa, ernalketa...*
OSPETSU.– *Ospe+tsu. Famatua, izen handikoa. -TSU atzizkiak ugaritasuna edo aparotasuna adierazten du. Esate baterako: ileTsu, garrantzitsu, osasuntsu...*
BEHARREZKOA IZATERA.– *Beharrezkoa izanez gero, beharrezkoa balitz.*
KEZKA.– *Ardura, larritasuna.*
PITTIN.– *Apurra, piska.*
ZAMA.– *Pisua, karga.*
ERAGOZPEN.– *Oztopoa, traba.*
ZIURTATU.– *Segurtatu.*



IKUSKIN-EK UTZIA

JOSE IGNAZIO ANSORENA (Musika-irakasle eta aktorea)

«Bai. Hartuko nuke, problemarik gabe. Ondorio sekundarioak edukiz gero? Orduan parejarekin hitz egin behar, aztertu eta ikusi zein den **aproposena**, segun eta bakoitza nolakoa den».

«Batzuek ezetz esango dutela? Ezetz?...Ba, badakite zein ondorio daukan horrek, alegia, ezin **jo** edo, jotzekotan, arriskua».



JOSE LUIS GARCIA (Sexologoa)

«Nik hartuko nuke. Baina, basektomia egina dut iadanik. Ardura hori bien artean **banatu** behar da. Orain arte beti emakumeari **leporatu** zaio zama eta hori ez dago batere ondo. Emakumezkoekin dugun zor historikoa **kitatzeagatik** ere gizonezkoak hartu egin beharko luke pilula».

Gizonezkoentzat pilularik ez da oraindik kaleratu. Baina baliteke zortzi-hamar urteren barruan horietakoren batek aurrera egitea»



GIZONEZKOEN PILULA

Oraindik ere ez da kaleratu gizonezkoen pilula. Emakumezkoena, berriz, **salgai dago** 1950eko hamarkadaz geroztik. Zergatik emakumezkoena lehenago? «Mediku eta ikerlaririk gehienak gizasemeak direlako» diote batzuek. Baina, bada beste arrazoi bat ere. Emakumeak hilean obulu bakar bat **sortzen** du. Gizonak, ordea,milioika espermatozoide sortzen ditu etengabe. Eta, beraz, horien lana oztopatzea zailago da **nonbait**.

Hala ere, arlo honetan ikerketak aurrera doaz. Gaur egun hiru produktu-mota ari dira ikertzen: **sendabelarretik** ateratakoak, hormonak eta hormonarik gabeko produktu kimikoak. Lehenengoen artean, Gossypol da ezagunena. Txinan hasi ziren ikerketak 1971n. Konturatu ziren sukaldean **kotoi-haziaren** olioa erabiltzen zutenek oso haur gutxi zituztela. Eta, horretan oinarrituta, pilula sortu.Dena dela, osasunerako kaltegarria dela eta, ikerketa ez da oraindik bukatu. Hormonaz egindakoak eta hormonarik gabeko beste produktu kimikoak ere oraingoz ez dira kaleratu arrazoi berberengatik,osasunerako oso kaltegarriak direlako.

APROPOS.– *Egokia, ona.*
JO.– *Harreman sexualak izan.*
BANATU.– *Partitu. Distribuir.*
LEPORATU.– *Ezarri lepoan jarri. Cargar.*
KITATU.– *Zorra ordaindu.*
SALGAI EGON.– *Esta a la venta.*
SORTU.– *Crear.*
NONBAIT.– *Dirudienez, antza denez.*
SENDABELAR.– *Hierba medicinal.*
KOTOI-HAZI.– *Semilla de algodón.*

PUNTUAZIO-MARKAK (eta V)

❸Bostgarren atal honekin amaiera emango diogu puntuazio-marken errepasoari.

Puntuazio-markak behar-beharrezkoak dira idatziaren esanahia argitu eta zenbait ñabardura adierazi nahi baditugu. Pausuz pausu gabiltza, arazoak eta legeak ezagutaraziz.

Eskuartean duzun ale honetan, gidoi eta marratxoaz, marraz eta apostrofoaz arituko gara.

Poliki-poliki irakurri eta ea zalantzak argitzen dituzun.



ÑABARDURA.– *Xehetasuna. Detalle.*

GIDOIA

1.- Hitz bat lerro batean osorik sartzen ez denean, gidoia eta marratxoa erabiltzen dugu hitza **ebakitzeko**. Hitzak silabaka ebaki behar dira, noski.

2.- Pertsona eta toki-izen **arrotz**, ezezagun edo gutxi ezagunetan, atzizkiren bat **eransten** zaienean.

Esaterako:

Bihar Georgetown-n bazkalduko dugu.
Mijaíl Gorbachov-en iritzia da.

3.- Aldizkari, egunkari, liburu eta antzekoen izenak aipatzerakoan, marratxo bat jar daiteke atzizkiaren aurretik,komatxo artean idazten ez direnean.

Adibidez: *Panorama-tik hartutako datuak dira.*

4.- Zenbait hitz elkartutan.

Adibidez: ***Tarteka-marteka**; senar-emazteak; sexu-harremanak...*

MARRA

1.- Marra elkarrizketetan erabiltzen da, hizketalagun bakoitzak dioenaren aurretik.

2.- Antzerki-lanetan ez dago marra ipini beharrik, zati bakoitzaren aurrean pertsonaiaren izena jartzen bait da.

3.- Lehen esan bezala, parentesiaren ordez ere erabiltzen dira bi marrak, perpausaren barruan beste bat argibide gisa sartzen denean.

Adibidez: *Datorren guztietan -eta sarritan etortzen da- opariak ekartzen dizkit.*

APOSTROFOA

Hitz batean letra bat edo beste jan dela adierazteko erabiltzen da. Arau honek ez du balio, noski, hitz elkartuetarako.

Adibidez: *Zortzi t'erdiak dira.*
Agur t'erdi.

Orain, eta sail honetako ohiturari jarraiki, ariketatxo bat aurkeztuko dizugu. Gidoiak eta marrak kendu ditugu ondorengo testutik. Ea behar bezala **burutzen** duzun ariketa txiki hau.

(...) Baina zenbait enpresa mediku konturatu da hori ez dela horrela, eta gauez eta batez ere **txandaka lan egiten** duen batek baino gehiagok loezina izaten duela. Gorputzak lo egiteko, edo jateko, edo lan egiteko, **ordu jakin batzuk** ditu, erritmo jakin bati jarraitu behar dio. Behin eta berriz erritmo hori aldatzen bada,zenbaitek **nozitu** egiten du.

SOLUZIOAK


Ikus ezazu HABE Aldizkariaren 174.eko GAUEKO LANA,EZINBESTEKO GAUPASA.

EBAKI.– *Moztu.*
ARROTZ.– *Ezezaguna. Raro, extraño.*
ERANTSI.– *Gehitu. Añadir.*
TARTEKA-MARTEKA.– *Noizbehinka.*
BURUTU.– *Zertu, egin.*
TXANDAKA LAN EGIN.– *Trabajar a turnos.*
ORDU JAKIN BATZUK.– *Determinadas horas.*
NOZITU.– *Jasan, pairatu.*

BA OMEN ZEN BEHIN BATEAN ZINE-FERIA


❸43garrenean, **aidanez**, Cannesek zineaz blai egin zuen bere burua. Filmeak nonnahi. Zeluloidea hautagai, ikusgai, salgai. Fotogramak **enkantean**. «Zenbatean utziko didazu beldurrezko hau? Behar izanez gero, prezio berberean emango al dizkidazu **erdipurdiko** hori eta «marabila» hura?». Halaxe aritu ziren 12 egunean irudi-tratalariak. Cannes, sal-erosketarako eta amets egiteko lekurik **aproposenetarikoa**.

PALMONDOA.



Hona hemen aurtengo zinemaldiaren kartela. Bertan, itzal magikoen artean, denen desioa eta **lilura** ageri da, urrezko palmondoa. Portzierto, Cannesen urtero «Kartelen gaua» ere izan ohi da. Guk maite ditugun filmeen kartelak enkantean jartzen dira. Zinemaldiaren irudia, **epaimahaiko** guztiek **sinatua**, 15.000 liberatan bereganatu zuen aurten zale **amorratu** batek.

LOLITA



Cannesen fantasmak dabiltza Croisetten zehar. Filme-izpirituak. Dudarik ez. Zuen ustetan, zeluloidezko pelikulek izan behar ikusgai eta salgai daudenak. Arrazoi osoz pentsatzen duzue horrela, baina **oker zaudete**. Aurre-produkzioan daudenak, zuzendariarekin kontratua izenpetua izan arren, oraindino **izarren** baiezkorik ez dutenak, gidoiaz aparte, besterik ezer ez direnak... denak anunziatzen dira ferian. Adibiderik? «Lolita»ren bertsio berria «Atracción fatal»en zuzendariak, Adrian Lynek, egina edo «Alien» hirugarrena...

HIDDEN AGENDA



Zinea zinea zelakoan **geunden gu**, eta ez da horrela inolaz ere. Britainia Handiko ordezkari eta kazetari zenbaitsuri ez zitzaion batere gustatu Irlandaren berri **mingots** eta gogorra ematen duen filme konpromezu handikoa. Boikotean hasi ziren **asaldaturik**. Gobernu britainiarrari protesta egiteko eskatu zioten... Halare, epaimahaiak ausart jokatu zuen eta berezkoa duen sariaz **gorapatu** filmea.

TRAILERREN 7. JAIALDIA

Bitan **banatzen** da Canneseko **eromena** egun batez. Orduan benetako filmeak ikusteko **grina** eta beharra sor-

AIDANEZ.– *Dirudienez, antza.*
ENKANTE.– *Subasta.*
ERDIPURDIKO.– *Kaskarra, eskasa, balio gutxikoa.*
APROPOS.– *Egokia, ona.*
LILURA.– *Encanto.*
EPAIMAHAIKO.– *Miembro del jurado.*
SINATU.– *Izenpetua. Firmado.*
AMORRATU.– *Porrokatua. Empedernido.*
OKER EGON.– *Deskuidatuta egon. Estar equivocado.*
IZAR.– *Estrella.*
GEUNDEN GU.– *Uste genuen.*
MINGOTS.– *Mikatza. Aurkakoa. gozoa.*
ASALDATU.– *Urduritu, artegatu.*
GORAIPATU.– *Goratu. Alabar, ensalzar.*
BANATU.– *Dividir.*
EROMEN.– *Zoramena. Locura.*
GRINA.– *Zaletasuna, desioa.*



tzen dituzten filmetxoak zinearen jaun eta jabe **bihurtzen** dira. Ba al dakizue zeinen zaila den han-hemenka harturiko irudien bitartez filme jakin bat ikusi beharrekoa dela erakustea? Errespetu handiagoa, lagunok, trailerrekiko.

LA SIRENITA




Marrazki bizidunak Cannesen? Arranopola!!! Ez didazu, ba,esango Sail Nagusian zeudela programaturik... Baietz, ba. Eta emanaldi berezi batean? Alajainkoa, hamaika ikusteko jaioak gara!!! E, aizue, **algara** gutxiago. Filme honek bi Oscar eskuratu ditu bere musikarengatik eta gainera, sentsuala, maltzurra, dantzarako egina, dibertigarria da... erabat.

GODZILLA VERSUS BIOLLANTE

Inozoak, zuek seguraski pentsatzen zenuten Cannesen filme serioak besterik ez direla ikusten/saltzen/erosten. Oker zeundeten. Merkatuaren eskeintza izugarri zabala eta zakarra da. Esaterako, indar nuklearrak sorturiko Godzilla munstro maitearen azken abenturak ikus daitezke lasai asko. Ezer ez da aldatu. Beno, tira, lodi samar dago, zaharkiturik, baina hortxe dirau, **irmo**. Beste izenburu **mamitsurik**? Segituan... «Motor banpiroa erosi nuenekoa...».




WILD AT HEART



Begiratu ondo, horiek bezalakorik aurkitzea zaila bait da oso. Sailor eta Lula dira, David Lynchen filmearen protagonistak. Laura Dern eta Nicolas Cage dira. Filme iluna,odola dariona, **goibela**, bihurria, odola eta sexuak pikardatua, alaia eta **ezkorra**, itxaropenez gai nezka eta tristea. Zoragarria oso. Urrezko palmondoa eskuratu zuen. **Bejondeizuela**, lagun kemen-tsuak!

TO SLEEP WITH ANGER



Lastima Cannesen ez zinetela egon. Charles Burnetten filmea galtzea ikaragarria da. Bera da Estatu Batuetako zuzendari beltzen **aitzindari**. Zaudete lasai... Donostiako zinemaldira ekarriko bait dute. Sail Nagusira, hain zuzen. Honekin batera, beste sei zinegile beltzen lanak. Gau batez, «Hidden agenda»ren izotzezko **samintasunean murgilduko** gara.

Alex Corti zuzendari austriarra epaimahaian izango da eta, suerte pittin batez, gurean estrenatuko da denok espero dugun zientzi fikziozko **miraria**, «Total recall».

Begoña Del Teso.

BIHURTU.– *Bilakatu. Convertir.*
ALGARA.– *Barrea. Carcajada.*
INOZO.– *Xaloa, inuxentea. Ingenuo.*
IRMO.– *Tinko, sendo.*
MAMITSU.– *Eduki askokoa. Sustancioso.*
GOIBEL.– *Iluna, tristea.*
EZKOR.– *Pesimista. Aurkakoa. baikorra.*
BEJONDEIZUELA!– *Zorionak!. ¡Bravo!*
AITZINDARI.– *Pionero.*
SAMINTASUN.– *Atsekabea, nahigabea. Dolor.*
MURGILDU.– *Sartu, barneratu.*
MIRARI.– *Milagro.*

LOGSE, HEZKUNTZAN ERE EUROPARA BIDEAN? (I)

❸ LOGSE, hezkuntzaren berrikuntza ekarriko duen legea, 92-93 urterako **indarrean jarriko da.**

Azken hilabeteotan hainbeste eta hainbeste eztabaida sortzen ari den **lege-egitasmo** honek garrantzi handiko erreformak egin nahi dizkio oraindik indarrean dirauen legeari.

Badirudi hezkuntz sistema berri bat edo gutxienez berritu bat beharrezkoa dela, eta horretan denok **ados daude**; ez ordea, hau **gauzatzeko** moduarekin.



ARGAZKIAK: GEMA M. ARRUGAETA

Lanbide-Ikasketen diskriminazioa gainditukо ote?

1970.ekoa da heziketa **arautzen** zuen azken legea eta argi dago gizartean hogei urteotan **bilakaera** bat gertatu dela eta gizartearengan eragin handia izan duten zenbait fenomeno ere gertatu direla. Esate baterako, Konstituzioa bera, eta honek autonomien **sorreran** izan duen zerikusia. Aipatzekoa ere, hezkuntzaren barnean, 1985.eko LODErena. Beraz, horiek horrela, argi dago erreforma beharrezkoa dela.

Eredu berriaren egitura

Hezkuntz sistema berria ikasketa orokorrek nahiz bereziek osatuko dute. Ikasketa orokorren barnean ohizko gaiak **irakatsiko** dira, berezien artean, berriz, ikasketa artistikoak eta hizkuntza modernoak **jorratuko** dira.

LOGSEk proposatzen duen hezkuntz **egitarauaren** barnean ziklo edo aro diferenteak **bereizten** dira:

– Haur-hezkuntza (0-6 urte): **aukerazkoa**. Horrez gain, zenbait Elkarte Autonomok diru-laguntza edo beka batzuk eskaintzen dituzte.

– 1. mailako ikasketak (6-12).

– 2. mailako **derrigorrezko** ikasketak (12-16). Hauxe da berrikuntzarik nagusiena, derrigorrezko ikasketak bi urtetan luzatzen direlako.

– 3. mailako derrigorrezko ikasketen ondorengoak (16-18) (Batxilergoa eta erdi mailako **Lanbide Heziketa**).

–4. goi-mailako lanbide eta unibertsitate-ikasketak.

1970. urtekoa da hezkuntzaren azken birmoldaketa-legea

INDARREAN JARRI.– *Poner en vigor.*
LEGE-EGITASMO.– *Proyecto de ley.*
ADOS EGON.– *Bat etorri, konforme egon.*
GAUZATU.– *Zertu, burutu. Realizar.*
ARAUTU.– *Normativizar.*
BILAKAERA.– *Desarrollo.*
SORRERA.– *Creación, origen.*
IRAKATSI.– *Enseñar.*
JORRATU.– *Landu. Cultivar, trabajar.*
EGITARAU.– *Programa.*
BEREIZI.– *Distinguir.*
AUKERAZKO.– *Optativo.*
DERRIGORREZKO.– *Obligatorio.*
LANBIDE HEZIKETA.– *Formación Profesional.*
ERABERRIKETA.– *Eraberri(tu)+keta. Reestructuración. -KETA atzizkiak ekintza adierazten du. Esate baterako: azterketa, garbiketa, erosketa, aldaketa...*

Berrikuntzarik nagusienetakoa derrigorrezko ikasketak luzatzearena



Ea, behin betikoz, ikastolatik irtetean, gureaz beste hizkuntza moderno batetan mintzatzeko gai garen.

Berrikuntzarik nagusienak

Hezkuntzaren **eraberriketa** honek aldaketa sakonak ekarriko ditu. Besteen artean, lehen aipatutako ikasketa artistikoen eta hizkuntza modernoen **ezarpena**. Ikasketa berezi hauei dagokienez, esan beharra dago ikasketa artistiko eta musikalek ez zutela orain arte loturarik hezkuntz sistemarekin. Bestalde, ikasketa-multzo honen barnean aurkitzen diren hizkuntza modernoak 1. mailako ikasketen barruan eskainiko dira. Honek esan nahi du hizkuntzen irakaskuntza aurreratu egiten dela eta erabaki honen **helburua** derrigorrezko ikasketak bukatzean ikaslea hizkuntza moderno bat menderatzeko **gai izaten dela**. Bazen horretaz **kezkatzeko** ordua!

Azpimarratzekoak, hala berean, derrigorrezko heziketa hamalau urtetik hamaseira luzatzearena eta lanbide-ikasketek izango dituzten aldaketak. Eta hezkuntz egitarauak birmoldaketa behar badu, baita ere berau aurrera eramateko **erak**.

Oraindik indarrean dagoen ereduak ikasleen azken **emaitzei egiten die so** batez ere. Ezarri nahi duten honek, berriz, bide osoa, ikasketen prozesu osoa hartu nahi du kontuan. Horretarako, ikaslearen inguru-giroari begiratu behar zaio eta baita ere bere **gaitasunari**; azken finean, lortu nahi dena heziketa pertsonalizatuagoa bait da. Eta hortxe dago erreformaren **koxka**!

Hau da lege honen eta irakasleen beren **herronkarik** handiena, batipat 2. zikloan, 12 urtetik 16ra doan horretan. Eta desafio hau gainditu ahal izateko, eskolen eskutan egongo da gaiak nola hedatu, nahiz eta MEC (Ministerio de Educación y Ciencia)k kurrikulumak ezarriko dituen.

Eskolek planteamendu zehatz batzuk egiteko aukera izango dute eta zehazki 2. ziklo horretan eskolak gai konkretu batzuk eskaini ahal izango dizkio **ikaslegoari**. Zentruak, ondorioz, **nortasun** handiagoa izango du.

Egiterik handiena,12-16 urte bitarteko derrigorrezko maila hori izateak, ez du esan nahi **gainontzekoak** garrantzirik gabeak direnik, 0-6 urte bitarteko ziklo hori ere **oinarrizkoa** bait da, **haurtzarotik antzematen** direlako ikasle bakoitzaren nortasun eta **berezitasunak**.

Lanbide-Heziketaren birmoldaketa

Honek ere aldaketa baten beharra duela aipatu dugu lehen, diskriminazioaren **sorburu** delako. Zergatik? 14 urterekin **OHO** bukatzen zutenek ez zutelako artean lanean hasteko **adinik** eta, tarte hori betetzeko, Lanbide-Heziketara jotzen zutelako.

Lanbide-hezkuntza berriak arazo hauek gainditu nahi ditu, alde batetik, eta ikasketa egokiagoak eskaini, oraingoak ez bait datoz bat enpresarien eskakizunekin.


Bestalde, iadanik lanean ari direnek ere lanbide-ikasketak egiteko aukera izango dute, beren gaitasuna frogatzen duen azterketa bat gainditu ondoren.

Baina lege hau zertan den azaltzea ez da aski. Hasieran adierazten genuen bezala, oso gai **eztabaidagarri** eta eztabaidatua bait da LOGSEri buruzko hau. Eta **hika-mika** guztien **berri** izan dezazuen, datorren alean hezkuntzan zerikusia duten hainbat talderen iritzia eskainiko dizuegu, gai hau legearen deskribapen soilean gera ez dadin .❑

EZARPEN.– *Imposición.*
HELBURU.– *Xedea, asmoa.*
GAI IZAN.– *Gauza edo kapaz izan.*
KEZKATU.– *Arduratu. Preocuparse.*
AZPIMARRATU.– *Subrayar.*
ERA.– *Moldea, modua.*
EMAITZA.– *Emaria, ondorena.*
SO EGIN.– *Begiratu, erreparatu.*
GAITASUN.– *Ahalmena. Capacidad.*
KOXKA.– *Gakoa, giltza. Clave.*
HERRONKA.– *Desafío.*
IKASLEGO.– *Ikasle+go. Alumnado. Era berean: entzulego, ikuslego, irakaslego...*
NORTASUN.– *Personalidad.*
GAINONTZEKO.– *Osterantzekoa, enparaua. Restante.*
OINARRIZKO.– *Funtsezkoa. Fundamental.*
HAURTZARO.– *Haurtza+aro. Haur-garaia. Era berean: zahartzaro, helduaro, gaztaro...*
ANTZEMAN.– *Ezagutu, igerri.*
BEREZITASUN.– *Características.*
SORBURU.– *Iturria. Origen.*
OHO.– *EGB.*
ADIN.– *Edad.*
EZTABAIDAGARRI.– *Eztabaida(tu)+garri. Discutible. -GARRI atzizkiak eragina adierazten du. Esate baterako: beldurgarri, mailagarri, negargarri...*
HIKA-MIKA.– *Eztabaida. Discusión.*
BERRI.– *Informazioa. Noticia.*

ifernu eta esklabutzatik ihesi.

Kronika



ZEIN HONDARTZATARA GOAZ?




ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

❸*Iritsi da azkenean aurten ere hondartzarako denboraldia! Honez gero zuetako asko ederki* ***beztuta egongo*** *zarete. Batzuk, maiatzaz geroztik, sarritan joan dira hondartzara. Izan ere, denboraldia hasi aurretik* ***primerako eguraldia*** *izan dugu, eta jende gutxi biltzea ere* ***erakargarri*** *izaten da. Hemendik aurrera, ordea, ilara luzetan kotxearen barruan* ***kiskaltzen*** *egon beharko dugu hondartzarako bidean. Hondartzara ailegatutakoan,* ***aldamenekoekin sesioan*** *hasi behar,* ***etzateko*** *tokirik uzten ez digutelako. Eta,* ***beroak ito beharrean*** *gaudenean, uraren kutsadura dela eta ez dela, bainatzeko beldurrez. Gurean, Iparraldea alde batera utzita, oso hondartza gutxitan dugu ur garbia. Iazko denboraldian Gipuzkoako seik eta Bizkaiko bakar batek betetzen zituzten EEEren Direktibako arauak.*

EEEren Direktibak hondartzako uraren kalitatea neurtzeko **irizpide** mikrobiologikoak hartzen ditu kontuan. Horretarako, Osakidetzak hamabostero-hamabostero ur-analisiak egiten ditu Gipuzkoako eta Bizkaiko hondartzetan. Denboraldia hasi baino hilabete lehenago hasten dira datuak jasotzen eta, bukatu ondoren ere, beste hilabetez luzatzen dira **ikerketak**. Horrela, bost hilabeteko datuak bilduta, uraren garbitasunaren arabera **sailkatzen** dira hondartzak. Bi **multzo** nagusitan banatzen dira: Direktiba betetzen dutenak, hau da, ur garbi-garbia dutenak, "primerakoak"; eta besteak. Iazko datuen arabera, hogeitamalau hondartzetatik zazpi bakarrik sartu zituzten lehen multzoan. Beste hogeitazazpiak, berriz, kanpoan utzi behar **derrigorrez**.

ARAU.– *Norma, reglamento.*
BEZTUTA EGON.– *Estar bronceado o moreno.*
PRIMERAKO EGURALDI.– *Oso eguraldi ona.*
ERAKARGARRI.– *Erakar(ri)+garri. Atrayente. -GARRI atzizkiak eragina adierazten du. Adibidez: liluragarri, harrigarri, zoragarri...*
KISKALI.– *Requemar.*
ALDAMEN.– *Alboa, ondoa.*
SESIO.– *Okasioa, tirabira, borroka.*
ETZAN.– *Tumbarse.*
BEROAK ITO BEHARREAN.– *A punto de asfixiarse de calor.*
IRIZPIDE.– *Criterio.*
IKERKETA.– *Iker(tu)+keta. Investigación. -KETA atzizkiak ekintza adierazten du. Adibidez: azterketa, garbiketa, antolaketa...*
SAILKATU.– *Banatu. Clasificar.*
MULTZO.– *Conjunto.*
DERRIGORREZ.– *Ezinbestean, nahitaez.*



Hondartza asko ibai ondoan daude eta, beraz...

Hogeitamalauren artean hamahiruk ez dituzte gutxieneko arauak betetzen

Ur garbienak

Iazko datuak aipatzen ditugu. Izan ere, bost hilabeteko datuen bataz bestekoak dira. **Hamabostaldi jakin** bateko datuak egun batetik bestera alda daitezke, ur-korronteak beste era batekoak direlako, edota industriaren batek **isurketa** handia egin duelako.


Bizkaian, Direktibarekin bat datorren bakarra dago, Lagakoa; eta Gipuzkoan, sei: Hondarribia, Kontxa, Ondarreta, Orioko Antilla, Getariako Malkorbe eta Debakoa. Ur garbiaren zale bazara, beraz, badakizu nora joan bainatzera. Zazpi horietatik, bestalde, Donostiako Ondarretakoa izan zen garbiena. Dena dela, esan bezala, egun jakin batean gerta liteke besteren bat garbiago egotea.

EEEren arauak betetzen ez dituzten beste guztiak, hala ere, ezin dira sail berean sartu. **Alde** handia dago batetik bestera. Direktibaren arabera, batzuk erdi-mailan daude, eta beste batzuek ez dituzte gutxieneko **baldintzak** ere betetzen: " Ez dago esaterik Direktibarekin bat ez datozen guztiak hondartza txarrak direnik. Askok gutxieneko osasun-baldintzak betetzen dituzte eta, horietatik, batzuk, ia lehenengo sailean sartzeko moduan daude, Sopelako Arietarra-Atxabiribilekoa esate baterako. Sopelako hondartza honi iaz EEEko Bandera Urdina eman zioten, nahiz eta araudia oso-osorik ez bete. Eta beste hondartza batzuetan ere **berdintsu** gertatzen da" dio Carmen Urbieta Osasunketako teknikariak.

Ur zikina hondartza gehiegitan

Garbienak zeintzuk diren adierazi ondoren, ezin gordeko ditugu zikinenen izenak. Hona hemen, bada, hondartza horien zerrenda luzea: Gipuzkoan, Donostiako Gros, Zumaiako Santiago, eta Zarauzko hondartzaren eskuinaldea; eta, Bizkaian, Getxoko Ereaga, Plentzia, Gorliz, Mundakako Laidatxu, Sukarrietako San Antonio, Ea, Lekeitioko Isuntza, Mendexako Karraspio, Ondarroako Arrigorri eta Bakiokoa. Guztira, beraz, hamahiru dira gutxieneko arauak betetzen ez dituzten hondartzak. Hogeitamalautik hamahiru, gehiegitxo, ezta?

Dena den, Carmen Urbietak esan digunez, hemendik urte gutxi barru askoz gutxiago izango dira, prestatzen ari diren aurreproiektuak aurrera eramanez gero. Ur zikinak depuradoretan garbitu edota hondartzaren ondoan **isuri beharrean**, itsasoan aurrera botatzen badira, askoz garbiagoak izango dira: "Abanto-Zierbena eta Muskizen artean dagoen La Arenako hondartza dugu **eredurik** garbiena. Joan den denboraldira arte hondartza hori lotsagarria zen. Ur zikinak hondartzara joaten ziren zuzenean. Ez zegoen bainatzerik. Baina, Ur Partzuergoak depuradora jarri zuenez, hondartza iaz hasi zen gutxieneko baldintzak betetzen" dio Carmenek.



Bizkaian Direktibarekin bat datorren bakarra dago eta Gipuzkoan sei.

HAMABOSTALDI JAKIN.– *Determinada quincena.*
ISURKETA.– *Vertido.*
ALDE.– *Diferentzia.*
BALDINTZA.– *Condición, exigencia.*
BERDINTSU.– *Berdin+tsu. Ia berdin. Era berean: halatsu, bezalatsu, bestelatsu...*
ISURI BEHARREAN.– *Isuri ordez edo partez.*
EREDU.– *Ejemplo, modelo.*

OSAKIDETZAko Bizkaiko arduradunak ere itxaropentsu daude. Europa 93 plangintzaren barruan, Gorliz, Lekeitio, Mundaka, Bakio eta Plentzian depuradorak **jartzekoak dira**. Hainbeste aipatutako Nerbioiren garbiketa-planak ere **izango ahal du eraginik!**


Iparraldean eta Araban...

Sarreran aipatu dugunez, Hegoaldeko hondartzetan **ez bezala**, Iparraldekoetan, oro har, urek maila hobea dute. Eta jendeak badaki hori. Milaka eta milaka lagunek **zeharkatzen** dute muga asteburuetan **patxada** eta garbitasun handiagoaren bila. Ez da harrigarria ura garbiago egotea, bi arrazoi bait daude horretarako. Lehenengoa eta, agian, pisurik handiena duena, Iparraldeko kostaldean oso jende gutxi bizi dela eta ia industriarik ez dagoela. Eta bigarrena, luxozko turismo-gune izaki, arazo horiei **arreta** handia jartzen dietelako.

"Eta Arabako hondartzak zer?" galdetuko du arabarrak. Arabak, barrukaldean egonik ere, bai bait ditu hondartzak Zadorra eta Santa Engrazia **urtegietan**. Arabako Foru Aldundiak 1984ean argitaratutako gida turistikoan horrelako bost ageri dira mapan. Ura, jakina, garbia da, urtegiak ez bait dira alferrik gasteiztarrek eta bilbotarrek edateko sortuak. Berez, **ez da zilegi** edateko uretan bainatzea, are okerrago **lehorte-garaian**, baina egin egiten da; baita txalupa eta yate motordunetan ibili ere, gasoila isuriz. Dirudienez, Osasunketa Sailekoei bururatu omen zaie inoiz "hondartza" horietako ura aztertzea bainatzeko **aproposa** den jakiteko. Baina, horrek jendea bainatzera bultzatuko ote zuen erreze-loa zutenez, ez egitea erabaki zuten.

OSAKIDETZAkoek, dena den, ez digute EEEren arauen arabera informazioa ematen. Jendeak ez omen du jakin nahi EEEk halako eta halako hondartzak **ontzat hartzen** dituen. Nahiago du uretan sar daitekeen jakitea eta, uretan sartuta, arriskurik ez izateko zer egin behar duen esatea. Horregatik, lau gomendio-mota ematen ditu: bainu librea -uretan ibili ondoren ez dago dutxatu beharrik-, kontuz bainatu! -ez da komeni hamar minutu edo ordu laurdenetik gora uretan egotea eta, ondoren, dutxatu-, ez da gomendagarri bainatzea -azaleko arazoak eta sor daitezke- eta bainatzea **debekatuta** -osasunerako **arriskutsua** da-.

Aurten, aurreko urteetan ez bezala, hondartzetan **zeinu** berezi batzuen bitartez emango dira aipatutako gomendio horiek. Jendeak bereganatu du ohizko banderen esanahia. Orain, bandera berri edo bestelako zeinuena ikasi beharko du. Lau zeinu gehiegitxo direla eta, beharbada, hirutan utziko dute, errazteko.



Itsasora botatzen ditugun hondakinak, itsasoak hondartzan uzten ditu.


Uraren garbitasunari dagokionez, Bizkaiko hondartza bakar batek eta Gipuzkoako seik betetzen dituzte EEEren Direktibako arauak

Azpiegitura eta zerbitzuetan nahikoa ondo

Hondartzara doazen guztiak ez dira bainatzen, ordea. Asko beztera joaten dira **soilik** edo lotara, uretan sartu gabe. Horiek ere harrapa ditzakete **gaitzak**, hondarra edo dutxak zikin daudelako. Hondartzaren **azpiegitura** eta garbitasunaren berri emateko, beste ikerketa batzuk ere egiten dituzte astero. Datu horiekin hondartzaren baloraketa egiten da. Gehienez 100 puntu lortzea zegoela, gehienak 70etik gora ibili ziren **iaz**. Beraz, oro har, azpiegitura, zerbitzu eta hondarraren garbitasun-maila nahikoa maila ona zuten bi lurraldeetako hondartzek. Getxoko Ereaga izan zen aurrenekoa, 98 punturekin, ura oso zikin bazegoen ere. Ondarreta zetorren segidan, 91 punturekin eta Kontxa 89rekin. Baina hauek iazko datuak dira. Agian, zertxobait aldatuko dira aurten.❑

JARTZEKOAK DIRA.– *Jartzeko asmoa dute.*
IZANGO AHAL DU ERAGINIK!- *¡Ojalá tenga influencia! ¡Ojalá influya!*
EZ BEZALA.– *A diferencia de.*
ZEHARKATU.– *Atravesar.*
PATXADA.– *Lasaitasuna.*
ARRETA.– *Ardura. Cuidado, atención.*
URTEGI.– *Pantano.*
ZILEGI IZAN.– *Haizu izan. Estar permitido.*
LEHORTE-GARAI.– *Lehorte-sasoia. Epoca de sequía.*
APROPOS.– *Egokia, ona.*
ONTZAT HARTU.– *Onartu. Aceptar.*
DEBEKATU.– *Galerazi, eragotzi.*
ARRISKUTSU.– *Arrisku+tsu. Peligroso.*
-TSU atzizkiak oparotasuna edo ugaritasuna adierazten du. Esaterako: adintsu, garrantzitsu, irritartsu...
ZEINU.– *Señal.*
SOILIK.– *Bakarrik.*
GAITZ.– *Gaixotasuna, eritasuna.*
AZPIEGITURA.– *Infraestructura.*
IAZ.– *Joan den urtean.*

OLE!!!!!




❷Donostian **jende ugari** dabil zezen-plaza eske. Baina hiriak beste **lehentasun** batzuk ditu eta, oraingoz, ez da halako **eraikuntza eztabaidagarririk** eraiki. Frantziako Toulouse-n ere bestelako lehentasunak daudela pentsatu dute, eta «Soleil d'Or» zezen-plaza bota eta haren lekuan ikastetxe bat eraikiko dute.

Pozteko moduko **albistea**, ezta?



SAN JUAN ETA AMESGAIZTOAK



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

❷Euskal Herrian badira erlijioaren inguruan zenbait **ohitura**. Hauetako batzuk, esaterako, amesgaiztoak eta sonanbulismoa kentzeko modukoak dira. Gaztelugatxeko ermitara joaten dira batzuk **gaitz** hauek sendatzera. Ermitan errezatu egiten dute, eta gero kanpoko kanpaia jo. Bermeon esaten denez, gaitz hauek ez izateko, hiru ostiraletan segidan egin behar da bisita. Eta lehen bisitaldia San Juan-egunean bada, hobe.


JENDE UGARI.– *Jende asko.*
LEHENTASUN.– *Prioridad.*
ERAIKUNTZA.– *Construcción.*

EZTABAIDAGARRI.– *Discutible.*
ALBISTE.– *Berria. Noticia.*

AMESGAIZTO.– *Lokamutsa. Pesadilla.*
OHITURA.– *Costumbre.*
GAITZ.– *Gaixotasuna. Enfermedad.*

NDUA

CHERNOBYL: ISTRIPUA BERRIZ GERTA DAITEKE




❷ Grigori Medvedev sobietarra fisikari atomiko **jakintsua** da. Liburu beldurgarria idatzi du Chernobyleko **eztanda** nuklearraz.

Zentraleko **buruak** ia bi egunean egon ziren istripuaz ezer esan gabe. Eta, beraz, bi egun horietan bertako **biztanleak** irradiazioak **jasaten**! Bitarte horretan haurrak eskolara joan ziren, arrantzaleak arrantzan egin zuten, hamasei **bikote** ezkondu...

Egun, errusiar gobernuaren arabera, 37 lagun hil dira dagoeneko, 100.000 lagunek dute **minbizia** izateko arriskua. Bestelako gaitz larriak 2 milioi lagun ari dira jasaten eta abar. Baina penagarriena hauxe da, berriz gerta daitekeela: «Ez dago inon guztiz arriskurik gabeko erreaktorerik. Istripua berriz gerta daiteke».

Eta Garoña? Eta Lemoiz?



UR ONA

❷Hego Euskal Herriko 50 hiri-herritan ura, sare publikoetakoa alegia, **aztertu** du Eroskik. Ur onak, besteak beste, milioiko 25 **zati** baino gutxiago behar du nitratotan. 50etik gora izatea **kaltegarri** da.

Azterketak dio ur ona edaten dugula. Amurriokoak milioiko 0,9 zati ditu nitratotan; Agurainekoak 4; Arrasatekoak 1,9; Elizondokoak 1,3; Beasaingoak 2,5; Tuterakoak 13; Barakaldokoak 4,4; Gernikakoak 8,3; Kanpezukoak 14,0; Lekeitiokoak 6,4; Zarauzkoak 3,4 eta abar. Lau **hiriburuetan** ere ur ona dago.

ISTRIPU.– *Accidente.*
JAKINTSU.– *Sabio.*
EZTANDA.– *Explosión.*
BURU.– *Jefe.*

BIZTANLE.– *Bizilaguna. Habitante.*
JASAN.– *Nozitu, pairatu.*
BIKOTE.– *Pareja.*
EGUN.– *Gaur egun.*
MINBIZI.– *Kantzerra.*

AZTERTU.– *Ikertu. Analizar, investigar.*
ZATI.– *Parte.*
KALTEGARRI.– *Nocivo.*
HIRIBURU.– *Capital.*

ANTXOA ETA HEGALUZEARI LATA EMATEN



ARGAZKIAK: GEMA M. ARRUGAETA

❸Badatoz arrantzaleak **kaira**. Arrainez gainezka dakartzate ontziak. **Enkantean** prezioak behera egingo badu ere, pozik daude, aurtengo kanpaina aurreko urteetakoak baino askoz hobeto doa eta. **Arrandegietakoek** eguneroko kontsumorako erosten dutena ezik, beste arrain guztia nolabait gorde egin behar dute, bestela egun gutxi barru **alferrik galduta** egongo bait da. Euskal Herriak arrantz kontuan ohitura luzea duenez, **ondotxo** daki lan hori burutzen. Gaur egun lan honetan diharduten lantegi gehienak Bizkaian daude, Bermeon eta Ondarroan **bereziki**; Gipuzkoan, berriz, Orion eta Mutrikun badira bakar batzuk. **Garai batean**, arrain-mota dexente kontserbaratu arren, orain antxoa eta hegaluzea besterik ez dira sartzen latatan. Izan ere, jendearen jateko ohiturak aldaketa haundia jasan du azken urteotan.

Makinek ezin dute eskulana ordezkatu

Zortziak hamar gutxitan hasten dira azaltzen lehenengo langileak; ia-ia denak emakumezkoak izaten dira **esku-**

HEGALUZE.– *Bonito. Atun-mota bat.*
KAI.– *Muelle.*
ENKANTE.– *Subasta.*
ARRANDEGI.– *Arra(i)n+degi. Pescadería. -DEGI (-TEGI) atzizkiak lekua adierazten du. Esate baterako: oilategi, harategi, liburutegi...*
ALFERRIK GALDU.– *Hondatu.*
ONDOTXO.– *Oso ongi.*
BEREZIKI.– *Batez ere.*
GARAI BATEAN.– *Sasoi batean. Antes, en otra época.*
ESKULAN.– *Mano de obra.*

Hegaluzea eta hegalaburra bereizteko, hegatsari begiratu



Urte-sasoi honetan, antxoarekin ari dira buru-belarri. Ondoren, uztailetik azaroaren erdira bitartean, hegaluzea sartuko dute.

lana nagusi den lantegi hauetan. Baina, hauek lana izan dezaten, aurretik, egunaren lehenengo argiarekin batera, arraina erosia izango du lantegiak horretarako bidaltzen duen **arduradunak**. Enkantean -arrain-salmenta egiteko modu bereziari horrela deritzo-, komeni zaion arrain-saila erosten **ahaleginduko** da lantegi bakoitza, bere **beharren** arabera.

Garaian garaikoa

Urte-sasoi honetan, San Josetan hasi eta San Pedro inguru arte, antxoarekin ari dira buru-belarri. Ondoren, uztailetik azaroaren erdira bitartean, hegaluzea sartuko dute. Bi arrain-mota hauek, gure uretan harrapatutakoak biak, gorabehera haundiak izaten dituzte urte batetik bestera; hau dela eta, **aurrikuspena** egitea oso da zaila eta, tarteka, hemengo harrapaketak jaisten direnean edota prezioa oso altua denean, **hegalaburra** ekartzen dute kanpotik, Afrika eta Hegoamerikatik batipat, lantegiak geldi ez daitezen.

"Lan **aspergarri** samarra izan arren, norbaitek egin behar eta... guri tokatu zaigu" esan digu Lolik, **gesalaren** eraginez **eskuak laztuta dituen** emakume **bikain** honek, atetik 4000 kilo antxoa sartzen ikusi orduko. Antxoaren eta hegaluzearen lataratzean bada **alderik**, lehena erdikontserba bait da; bigarrena, aldiz, kontserba oso-osorik.

Antxoa eta hegaluzea

Antxoa, ekarri bezain laster, **gazitu** egiten da, ordu batzuk pasa eta gero mahaietan aukeratu eta garbitzeko. Antxoa txikia **xerrak** egiteko uzten da; haundia, berriz, gazitu eta gesaletan lataratzen da. Horietako antxoa-xerra latatxo bat guregana iristen denerako, **makina bat lan** egin behar izan du norbaitek. Burua eta barruak garbitu, ontzi haundi batzuetan gatzetan lauzpa-



Ia-ia denak emakumezkoak izaten dira lantegi hauetan.

ARDURADUN.– *Encargado.*
AHALEGINDU.– *Saiatu.*
BEHAR.– *Premia, beharrizana.*
AURRIKUSPEN.– *Previsión.*
HEGALABUR.– *Atun-mota bat.*
ASPERGARRI.– *Asper(tu)+garri. Gogaikarria. Fastidioso, aburrido. -GARRI atzizkiak eragina adierazten du. Esate baterako: beldurgarri, lotsagarri...*
GESAL.– *Ur gazia, gatzura.*
ESKUAK LAZTUTA EDUKI.– *Tener aspe-ras las manos.*
BIKAIN.– *Sendoa, ederra.*
ALDE.– *Diferentzia.*
GAZITU.– *Salar.*
XERRA.– *Filete.*
MAKINA BAT LAN.– *Lan asko.*


Latorriak ere ez du aurkakorik

bost hilabetetan eduki, ondoren xerrak atera eta oliotan jarri latan sartzeko. Azken urrats hau da makinek egiten duten bakarra. Hortik atera kontuak, nolako pazientzia behar den honelako lanetan aritzeko.

Hegaluzeari, **zerraz** burua moztu ondoren, barruak ateratzen zaizkio **eltzetzar** batzuetan **egosteko**. Egun batez hozten utzi eta azala eta hezurrak kentzen dizkiote, haragi garbia lortu arte. Oliotan nahiz eskabetxean jar daiteke eta gero esterilizatu egin behar da, 115en bat gradutan **irakinaraziz**. Etxean lataratutako hegaluzea **arriskutsua** izan liteke, etxeko suak ez bait du horrenbeste berotzen.

Hegaluzea, hegalaburrra, "**Aditua** izan behar duzu bi arrain hauek **bereizteko**. Izenak berak dioen bezalaxe, **hegatsa** da bereizgarririk nabarmenena. Batak luzexeagoa, besteak motza. Biak arrain urdinak izan arren, alde ederra dago batetik bestera! Zoritxarrez, **erosleak** prezioari besterik ez dio begiratzen. Hegaluzearen haragia askoz txuriagoa da eta kalitate hobekoa, hots, garestiagoa" adierazi digu Martin Puertasek, Orioko Azkue lantegikoak.

Eskulana oinarri duen alor honek aurrerapen gutxi ezagutu ditu. Makinek ezin dute emakumeen esku **trebeek** egiten duten lana **ordezkatu**. **Latorriak** ere ez du aurkakorik langintza honetan, kontserbagintzan alegia. **Leiarra** garbiagoa da, brik-a arinagoa, plastikoak modernoagoak; latorriak, ordea, kolpeei primeran eusten die, argiak egin ditzakeen kalteak **aldendu**



Antxoak, burua eta barruak garbitu ondoren, ontzi haundi batzuetan gatzetan lauzpabost hilabetetan eduki behar dira.

ere bai, eta ez da toxikoa. Puertas jaunak esan digunez, ez da merkeagoa delako -lata txiki batek 12 pezeta balio ditu-, **erosoagoa** eta hobea delako baizik.

EEEk ezarritako zergak garestitu

Euskal Herria dugu Europan hegaluze eta antxoa-xerra **ekoizleen** buru. Geure lurretik kanpora saltzen dugu gehiena. Estatuan, Mediterraneo inguruko dira gehien erosten dutenak. Europa mailan aritzeko, ordea, Ekonomi Elkarteak **ezarritako zergek** garestitu egiten dituzte hemengo kontserbak, beste zenbait herrialdetakoei abantaila emanez. Portugalek, esate baterako, ez du inolako zergarik ordaintzen; ezta Marokok ere, Frantziak, bertan dituen interesak direla medio eta han eskulana merkeagoa delako, guk baino askoz merkeago sal ditzake bere produktuak, nahiz eta kalitatez askoz txarragoak izan. Hauei Grezia, Jugoslavia eta Turkia gaineratuz gero, **lehia** izugarria dela aski erraz kontura gintezke. **Atzerrira** kontserba gutxiago bidaltzen da azken urteotan; hau dela eta, hemengo ekoizleak 1993.eko merkatu bateratua edota 1996.eko zerga ezabatzea noiz etorriko zain daude, denbora hobeak etorriko direlako itxaropenaz. ❑

Andoni Aizpuru

ZERRA.– *Sierra.*
ELTZETZAR.– *Eltze+tzar. Eltze handia. Era berean: piztitzar, mamutzar, besotzar...*
EGOSI.– *Cocer.*
IRAKINARAZI.– *Hacer hervir.*
ARRISKUTSU.– *Arrisku+tsu. Peligroso. -TSU atzizkiak ugaritasuna edo oparotasuna adierazten du. Adibidez: osasuntsu, euritsu, eguzkitsu...*
ADITU.– *Jakituna. Experto.*
BEREIZI.– *Distinguir.*
HEGATS.– *Aleta.*
EROSLE.– *Eros(i)+le. Comprador. -LE atzizkiak egilea adierazten du. Esaterako: ikasle, ikusle, entzule...*
TREBE.– *Iaioa, abila.*
ORDEZKATU.– *Ordezkoa egin. Sustituir.*
LATORRI.– *Hojalata.*
LEIAR.– *Beira, kristala.*
ALDENDU.– *Urrundu. Aurkakoa: hurreratu.*
EROSO.– *Egokia. Cómodo.*
EKOIZLE.– *Produktorea.*
EZARRI.– *Jarri. Imponer.*
ZERGA.– *Impuesto.*
LEHI.– *Competencia.*
ATZERRI.– *Erbestea, estranjeria.*

LIBURUAK

BIHOTZA GOLKOAN
Martin Ugalde

Erein. Donostia 1990



❸Martin Ugalderen **harmarrian** zubia agertzen da ziur. Gerraren ondorioz **erbestera** joana, han gizondua, han gizon ikasi eta idazle trebe eginda; Euskal Herrira itzuli zen. Erbesteko eta bertako euskaltzaletasunaren zubia pasa zuen gehienek baino irekitasun eta **adore** gehiagorekin. Euskara batuaren berritasunezko zubia ere igaro zuen, askori bideak irekiz. Erdaraz eta euskaraz idaztearena, beste zubi bat. Zubiak, azkenik, kazetaritza, elkarrizketa eta fikziozko literaturaren artean behin eta berriz, alde batera nola bestera ibiltzeko frogatu dituen **gaitasunak**.

Azken hilabeteotan, Martin Ugalderen lana ugari jaso dugu. Oraingoan ipuinak bildu ditu «Bihotza Golkoan» izenburuaz. Idazlearen eta gure artean, herri egiten gaituen bihotz amankomunaz ari da, **ziurrenik**.

Kanpotik kontatzen hasten den narratzailea lehen pertsonan mintzatzera ia **oharkabean** pasatzerainoko gertutasuna du narratzaileak bere pertsonaiekin. Kanpotik nola barrutik, **leun begiratzen** du Ugaldek, bihozkor, kidekor. Inoiz ez da, ordea, begirada **inozoa**, zuria, soilik juntagarri izateko sortua. Hori baino **gihar** haundiagoa du Ugalderen prosak, hori baino **garratzago** zaizkio gure inguruko eta gure iraganeko gertakizunak. Bere herkideengandik gertu egon nahi agerikoa dago egoera politikoaren biolentzia **saihestuko** ez duen fikzioa burutzeko ahalegin honetan.

GAUTXORIAK
Tormod Haugen

Itzulpena: Rosemiren Artola eta Ane Barandiaran.
Elkar, Itzul Saila. Donostia 1990.



❸Jake, ipuin honetako protagonista, mutiko normala da. Bizimodu arrunta egiten du: ez da oheratuko lehenengo ohe azpira begiratu gabe, atetik egongelako argia sartzen dela **ziurtatu** gabe, armairua giltzez ongi itxi gabe.Izan ere, armairuan bizi dira gautxori beldurgarriak.

Mutiko **zuhurra** da Jake. Arretaz saihesten ditu etxe aurreko eskaratzak gordetzen dituen arriskuak. Kontuz ibiltzen da indarrez edo gorpuzkeraz bera baino gehiago diren neska-mutilekin.

Jakeren mundua normala da, haur eta helduona, inor kanpoan utzi gabe. Jakek, beraz, ez du zergatik inozoa edo itsua izan behar. Ikusten du aita ere bere nerbioen beldurrak bizi dela eta beldurrari diola beldurrik haundiena. **Etsipen** hori **gainditzeko**, amak, aitak eta berak etxean egin behar duten borrokak, erakutsiko dio zoriontasunerako gaitasuna deskubritzen. Aitarekin mendian, amarekin gelan, atzo ez gaur bai, maite duen adiskidearekin **kale-kantoian**, Jakek ezagutzen ditu, baita ere, gautxoriei entzun gabe lo egingo dugula ziurtatzen diguten egunak.

T. Haugen noruegarrak gauzak kontatzeko darabilen argitasun, zehaztasun eta bizitasunaz, etiketarik behar ez duen literatur lan bat **erdietsi** du. Esaldi laburretan, atal eta kapitulu motzetan, idazkera **bizkor** eta biziaren zehaztasun lehorraz gozatu ahal izango duzue. Ez dago haur, ez dago gazte izan beharrik. Etiketa hoiriei kasurik ez egiten jakitea behar da soilik. Eta merezi du, liburu hau irakurtzeko baldin bada, merezi du. Benetan.

IFAR ALDEKO ORDUAK
Joseba Sarrionandia

Elkar. Donostia, 1990



❸Hamar ipuin bidali ditu Joseba Sarrionandiak **auskalo** nongo iparraldetik. Beti bait dago haruntzagoko izar bat, urrun, beti egon den bezala nora ihesia, nora erbesteratua izana. «Ifar aldeko orduak» da hamar ipuinak biltzen dituen izenburua. Nire irudipenerako, lekuz beste egin beharrak laburbiltzen du, giro minberaz, hamar ipuinon **mamia**.

Norberaren **sorterritik**, etxetik eta **haurtzarotik**, senide, adiskide eta **burkideengandik** edo norberaren baitatik lekuz beste egin beharra edo egin behar izana darabilte airean ipar aldeko ipuin hauek. Aitzakiaz, gaiez, garaiz eta lekuz **arras** desberdin izan arren, giroan, irakurlearengan utzi duten gogogiroan, badute batasuna.

Iragan, mito, orainaldi eta etorkizunaren gainetik eta oroitzapen, kronika, leienda eta kritikaren azpitik, hemengoa ez den eta inoizkoa ez den mundu hemengo eta egungoa sortu du. Sarrionandiaren munduak zehazgabetu egiten badira, ertzak garbiago ager daitezen da. Beti daude mugak, beti dago **patuaren** bortxa, beti dago herioa eta erailea, beti dago biktima, beti dago narra dramatiko bat baztertu ezin dena edota baztertzeko obligazioa dagoena. Imajinazioan, oroitzapenetan eta sentimenduetan. Baita hemen ere, iparralde jakin batetako hegoalde honetan.

Beti da gomendatzekoa Sarrionandiaren literatura. Beti aurkitzen dira, gainera, behin eta berriro irakurtzeko perlak.


J. Muñoz

HARMARRI.– *Escudo de armas.*
ERBESTE.– *Atzerria. Exilio.*
ADORE.– *Kemena. Valor.*
GAITASUN.– *Ahalmena, trebetasuna.*
ZIURRENIK.– *Seguruenik.*
OHARKABEAN.– *Konturatu gabe.*
LEUN BEGIRATU.– *Samurki begiratu.*
INOZO.– *Xaloa, inuxentea. Ingenuo.*
GIHAR.– *Nervio, fuerza.*
GARRATZ.– *Mikatza, mingotsa.*
SAIHESTU.– *Alboratu. Evitar.*
ZIURTATU.– *Egiaztatu, frogatu. Comprobar.*
ZUHUR.– *Burutsua, zentzuduna.*
ETSIPEN.– *Desesperación.*
GAINDITU.– *Garaitu. Superar.*
KALE-KANTOI.– *Kale-izkina.*
ERDIETSI.– *Lortu, eskuratu.*
BIZKOR.– *Bizia, azkarra.*
AUSKALO.– *Batek daki. Vete a saber.*
MAMI.– *Contenido.*
SORTERRI.– *Jaioterria.*
HAURTZARO.– *Haur-garaia. Infancia.*
BURKIDE.– *Colega.*
ARRAS.– *Zeharo, erabat.*
PATU.– *Destino.*

Gero eta jende gehiagok nahi du bere etxean hil

HILTZEN LAGUNTZEN

❷*Lehen jendea etxean hiltzen zen. Gaur egun, askotan, ospitalean. Baina jende askok etxean hil nahi izaten du eta horrelakoei hiltzen laguntzen ibiltzen da Alfredo Martinez. Alfredo Martinez Basurtoko anestesista da. Han «**Oinazearen** klinika» (**hiltzear** dauden gaisoei mina kentzeko) sortu zuen, baina orain beste batzuek egiten dute hango lana. Bera, ospitaleko lana **amaitzen** duenean, hiltzear dagoen gaisoren baten etxera joaten da hari mina kentzera.*



ARGAZKIAK: S. YANIZ

Min horiek kentzeko morfina eta horren antzeko beste droga batzuk **erabiltzen** dira. Aspaldi, **jokaera** honek **eztabaida** sortu zuen, azkenean gaiso horiek drogazale **bihurtzen** direlako. Alfredo Martinezek tratatutako gaiso batek bi urte **iraun** zuen minak morfinaz kontrolatuz; azkenean morfinazalea zen, jakina.

«Gaur egun hau ez da eztabaidagai. Azken finean, drogak horretarako dira, eta hauei ez zaie inoiz falta-ko, medikuaren **aginduz** ematen bait dira» dio Alfredok.

Gainera, **sarri aldatu** behar zaie medikazioa, ohitu egiten direlako; eta, **ohituz gero**, ez die minik kentzen. Hala ere, ez dute abstinentzi sindromerik izaten. Gaur egun, **bizkarrean** kateter bat sartzen da eta honela dosi txikiagoa ematen zaie. «Gaiso batzuk, **ahoz**, 150 edo 200 mgko dosiak hartzetik, bizkarretik 10 mg hartzera pasatu dira. Eta ez dute sindromerik izan. Denak ez dira drogazale bihurtzen, baina batzuk bai».

Minak kentzeko, morfina eta beste antzeko drogak erabiltzen dira

OINAZE.– *Mina. Dolor.*
HILTZEAR.– *Hilzorian edo hiltzeko puntuan.*
AMAITU.– *Bukatu.*
ERABILI.– *Utilizar.*
JOKAERA.– *Portaera. Conducta, actitud.*
EZTABAIDA.– *Disputa.*
BIHURTU.– *Bilakatu. Convertir.*
IRAUN.– *Durar.*
AGINDU.– *Orden, prescripción.*
SARRI.– *Maiz, usu. Frecuentemente.*
ALDATU.– *Cambiar.*
OHITUZ GERO.– *Ohitzen badira. Si se acostumbran.*
BIZKAR.– *Espalda.*
AHOZ.– *Por via oral.*

Batzuetan azkenengo momentuan anestesiatu egiten da gaisoa, lasai hil dadin

Mediku honen lana, ez da bakarrik mina kentzea, gaisoa **zaintzea** da, **ez dadila desidratatu** edo antzekoak. Gaisoak bere gaisotasunaren ondorioz hil behar du eta ahal denik gutxien sufrituz.

Honek ez dauka eutanasiarekin zerikusirik. Anestesista honen **iritzia** eutanasia pasiboaren aldekoa da, baina eutanasia aktiboaren kontra dago. «**Ez dago zertan agonia luzaturik, arnasa hartzeko** aparailuak jarriz eta abar. Gaur egun hauxe da iritzirik **hedatuena**. Honela, gaixoa hil behar duenean hiltzen da eta ez du hainbeste sufritzen». Izan ere, batzuetan azkenengo momentuan anestesiatu egiten da gaisoa, lasai hiltzeko. Agian 3 edo 4 egun gutxiago biziko da, baina heriotzaren kalitatea askoz handiagoa da.

Azken adioa

Hilzorian dagoenak badaki hiltzera doala, baina hasieran oso gutxik dakite hori, eta are gutxiagok **onartzen** dute. Psikologiak ondo estudiatuta dauzka fase horiek: lehenengotik errebelatu egiten da gaisoa, gero bere buruaren pena izaten du eta azkenean hiltzera doala onartzen omen du. Gaisoak hau onartzen duenean, prozesua **bizkortu** egiten omen da.

Alfredo Martinezek beti galdetzen du ea gaisoak dakien hil egingo dela eta zenbat denbora gelditzen zaion. Bere ustez, hobe da gaisoak hori jakitea, bakoitzak, bere burua eta ondoan utziko duena prestatzeko **eskubidea** bait dauka. Baina beti familiaren **nahia** errespetatzen du.



Gaisoak bere gaisotasunaren ondorioz hil behar du eta ahal denik gutxien sufrituz.

Gaisoak oraindik ez badaki, baina familiak **jakinaren gainean egotea** nahi badu, sendagileak esaten dio gaisoari hilko dela. «Piskanaka-piskanaka esaten diot, daukazun hau ez da batere ona» edo «ez dakit **sendatuko** zaren» eta antzekoekin hasita. Gero, prestatuta dagoela ikusten dudanean, egia osoa esaten diot».

Anestesisten lana

Lan honetan jarduteko, egokiena anestesista izatea da, baina anestesista gutxi daude eta lan honetan ez omen da dirurik irabazten. «Ezin dituzu bisita guztiak kobratu» dio Martinezek «azkenengo egunetan bi edo hiru aldiz joan behar izaten duzu eta. Gainera, nire kasuan, familiakoak edo lagunak dira gehienak».

Bilbon, bere ustez lan hau berak bakarrik egiten duela dio Alfredok eta herri txikietan, jende gehiago etxean hiltzen bada ere, ez dute horrelako zerbitzurik. Gero eta jende gehiagok nahi du bere etxean hil, baina anestesista gutxi dago eta ez dute lan horretan jarduten.❑

B. Azpiri

ZAINDU.– *Cuidar.*
EZ DADILA DESIDRATATU.– *Que no se deshidrate.*
IRITZI.– *Ustea. Opinión.*
EZ DAGO ZERTAN AGONIA LUZATURIK.– *No hay por qué prolongar la agonía.*
ARNASA HARTU.– *Respirar.*
HEDATU.– *Zabaldua. Extendido.*
ONARTU.– *Aceptar.*
BIZKORTU.– *Arindu. Acelerar.*
ESKUBIDE.– *Derecho.*
NAHI.– *Gura, desioa.*
JAKINAREN GAINEAN EGON.– *Estar al tanto, advertir.*
SENDATU.– *Osatu. Curar.*

HOROS

Ekainaren 15etik



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

❸Zu lan eta lan zabiltza eta zure **lankideek** ere zeure erritmoan jardutea nahiko zenuke.

Lagunekin gehiago irtetea komeni zaizu. Horrek gauzak bere neurrian hartzen lagunduko dizu.

Kontuz eguzkiarekin.




CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Hau ez duzu momentu egokia gauza berriei ekiteko, betikoan jarduteko baizik. Dena dela, horrek ez du esan nahi **aspertu** egingo zarenik: sorpresa asko izango dituzu hilabete honetan.

Familiako baten batek diru-laguntza eskatuko dizu seguru asko.

Lagunekin ibiltzeko **beharra**.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Kezkatuta eta **goibel zabiltza** eta ez diozu inori **zergatia** azaltzen. Hori dela eta, lagunak **urruntzen** ari dira eta zu gero eta tristeago. Badakizu zer egin.

Lanean, ordea, dena ondo aterako zaizu.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zeure buruari aitortu beharko diozu **maiteminduta zaudela**.

Baina ez kezkatu. Dakizunez, gaisotasun hori oso gozoa da.

Lanerako gogo gutxi. Odola **irakiten** daukazu. Beraz, ezertan buru-belarri jarduteko ez **zara gauza**.

Bizipoza.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 21era

Anai-arreben arteko harremanak gorabehera handikoak izango dira hilabete honetan. Garbi jokatzea komeni zaizu, bestela gero damutuko zaizu.

Lana dela eta, bidaia bat egiteko **aukera**. Oso ondo pasatuko duzu.

Liseriketa txarrak.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lanpostua hobetzeko aukera izango duzu hilabete honetan.

Aprobetxa ezazu aukera hori.

Lagun berriak egingo dituzu eta aspaldiko lagun batek sorpresa ederren bat emango dizu. Oso momentu ona, beraz, lagun arteko harremanetarako.

LAN ETA LAN IBILI.– *Lan asko egin.*
LANKIDE.– *Lan+kide. Laneko laguna. Era berean: bazkide, mahaikide, solaskide...*
GOIBEL IBILI.– *Ilun edo triste ibili.*
ZERGATI.– *Arrazoia, kausa.*
URRUNDU.– *Aldendu, urrutiratu. Aurkakoak: alderatu, hurbildu.*
AUKERA.– *Egokiera, parada.*
LISERIKETA.– *Digestión.*
ASPERTU.– *Gogaitu.*
BEHAR.– *Premia. Necesidad.*
MAITEMINDUTA EGON.– *Estar enamorado.*
IRAKIN.– *Hervir.*
GAUZA IZAN.– *Gai izan.*

KOPOA

Jztailaren 15era



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Maitasun-arloan problemak izango dituzu. Ez da dena orain arte bezain **leun joango**. Aztertu zeure **jokabidea**.

Diru aldetik ere estu samar zabiltza aspaldi honetan. Kopa gutxiago hartzen badituzu, ez bakarrik zure poltsikoak, zure osasunak ere eskertuko dizu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ez daukazu batere garbi zeintzu diren zure sentimenduak eta horrek **egonezin** handia dakarkizu. Ondo pentsatu.

Etxean ere beti **sesioan** ibiliko zara eta **errua** gehienetan zeurea izango da.

Lagunekin gehiago ibiltzea komeni zaizu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Erabakiak hartzeko momentu egokia. Oraingoan ez zaizu indarrik faltako zeure asmoak **gauzatzeko**, alde guztietatik trabak aurkitzen badituzu ere.

Beste alde batetik, hain harroa izatea ez zaizu komeni.

Horrela jokatzen jarraituz gero, zure lagunek **alde egingo** dute nazka-nazka eginda.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Eguneroko gauzatxoak izango dira zuretzat inportanteenak **bolada** honetan. Hori dela eta, zure familia oso pozik egongo da zurekin.

Diruari dagokionez, berriz, erabaki bat hartu behar duzu, baina momentu honetan ez zara horretarako gauza sentitzen.

Samurtasuna gainezka.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Dirua egiteko gogo eta aukera handiak. Baten bat zapaldu behar baduzu zeurea lortzeko, **zapaldu** egingo duzu.

Inoiz baino politago zaude aspaldi honetan eta diruak ematen duen «sex appeal»-arekin neska/mutil-mordoa ibiliko da zure atzetik.



PISCIS


Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Oso gustora egongo zara lagunekin. Hala ere, ez zaitez gauean berandu arte ibili, osasunez ez zaude oso ondo eta.

Lanaren aldetik, aspertu samarra zaude lan horrekin. Beti **zortea** noiz etorriko zain egoten zara baina askotan norberak **landu** behar izaten du zorte hori.

LEUN JOAN.– *Samur edo eroso joan.*
JOKABIDE.– *Portaera, jokaera. Actitud.*
GAUZATU.– *Burutu, zertu.*
ALDE EGIN.– *Hanka edo ospa egin. Huir.*
ZAPALDU.– *Zanpatu, sakatu. Pisar.*
EGONEZIN.– *Urduritasuna. Inquietud.*
SESIO.– *Borroka, okasioa, liskarra.*
ERRU.– *Kulpa.*
BOLADA.– *Denboraldia. Temporada.*
SAMURTASUN.– *Temura.*
ZORTE.– *Zoria. Suerte.*
LANDU.– *Jorratu. Cultivar, trabajar.*

DAKIDANA NOLA ESPLIKATUKO OTE DIT?



❸Garbi dago zure senarra beste batekin oheratzen dela jakiteak ez dizula **zirrara** berezirik egiten. Gehienez, haserrea, **gorrotoa**, edota bai bera edo bai bere amorantea piskatxo bat akabatzeko **grina** txikiren bat, eta gutxienez, lan gehiegi egindako egunek ematen duten burukomin arina. Baina enteratzeko **era** asko daude. Alegia, modu desberdinetan har dezakezula berria, eta nirea, benetan, ez zen modurik egokiena izan.

Telebista ikusten ari nintzen. Igandea zen. Hori ez zait sekula ahaztuko, aurreko telefilme guztiak **irentsi** ondoren, ia kasurik egin gabe begira nengoelako, alde batetik, eta, bestetik, gaur zortzi gertatu zelako, eta gaur igandea da noski. Ez nago oso ziur, baina uste dut turismoarekin zerikusia zuen erreportaiaren bat botatzen ari zirela.

Esan dut, edo ez dut esan?, oso aspertuta nengoela, eta kasik **arretarik** gabe begiratzen niola teleari, baina notizia hark **atentzioa eman** zidan. Ez zen besteak bezain serioa. Hondartza zabal bat ageri zen bertan eta **esatariak**, Kanariak aipatu zituen, «amaierarik gabeko uda» bizi duten **uharteak**, eta han inolako ardurarik gabe «eguzki goiztiarrak» **dastatzen** ari zirenen **zorteaz** ari

ZIRRARA.– *Pilpira, mugida, sarrastada.*
GORROTO.– *Ezinikusia, aiherkundea.*
GRINA.– *Desio bizia. Pasión.*
ERA.– *Modua, moldea.*
IRENTSI.– *Devorar, tragar.*
ARRETA.– *Ardura. Atención.*
ATENTZIOA EMAN.– *Llamar la atención.*
ESATARI.– *Locutor.*
UHARTE.– *Irla. Isla.*
DASTATU.– *Gozatu.*
ZORTE.– *Suerte.*
BELTZARAN.– *Morenora.*
IRABAZLE.– *Irabaz(i)+le. Ganador.*
-LE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: erosle, idazle, ikusle...

zen: Zer pentsa jarri nintzen, oraindik aurtengo oporrak non igaro erabaki gabe geneukalako, eta etorri bezain pronto Iñakiri horixe gogorarazi behar niola etorri zitzaidan burura. Eta, Iñaki gogoratzearekin batera, ikusi egin nuen, han, hondartzan, izenik gabeko emakume **beltzaran** baten ondoan etzanda.

Iñaki du izena nire senarrak. **Irabazle** batekin ezkondu nintzen, eta huraxe izan da nire hankasartzerik handienetakoa. Ez irabazle batekin ezkondu izana, ezkondu izana baizik, inork gaizki uler ez dezan.

«Ez duzu gauzak behar bezala ulertzeko **ahaleginik** egiten» esaten dit, esaten zidan Iñakik, jelosiazko edozein zeinu ikusten zidan bakoitzean. **Ze**, hori bai, **jeloskorra** banaiz. Zergatik hasi behar dut orain ezetz esaten? Badakit neronek ere hala naizela, eta ez dit **lotsa-izpirik** ere ematen. Zergatik lotsatu behar du, ba, batek, berea den zerbait eskuetatik doakiola ikustean haserretzen delako? Haserreak! Bat bakarra izango genuen azkeneko hamar urteotan! Hilean hamabost egun kanpoan egiten dituela kontutan izanik; bataz beste, orduko bat. Ez, ez naiz lotsatzen.

Baina ez al da jeloskor izateko modukoa hori bera ere?

Ezkondu eta bostgarren egunerako joan zitzaidan lehendabiziko aldiz. Lan-kontuak. Negozioak. Beti bazuen han ez bazen hemen **eginbeharren** bat. Bi, lau, sei, hamar egunetarako. «Zu egon zaitez lasai... zerbait falta bazaizu, esaidazu, baina egon lasai», maleta, muxu bat, deituko dizut, aireportua, agur eta ikusi arte.

Eta ni zain, esperoan, itxoiten, itxaroten, eguna joan eta eguna etorri, **itzuli** arte. Eta hori, nere lana, nere asmoak, guztia, berarekin ezkontzeagatik utzi nituelarik? Zergatik? Erraza da hori orain galdetzea. Orduan esan behar kantari izaten jarraitu nahi nuela! **Ederra jartzen zen**, ba, norbaitek dozena bat larrosa bidaltzen zidan bakoitzean! Eta ez zen behin bakarrik izan, ez dezala inork horrelakorik pentsa... Egia da, oraindik oso famatu izatera iritsi gabe nengoen; horregatik ez dizuet nere izenik esango, baina bide hartatik jarraitu izan banu, kezkarik gabe, egungo ezagunenetako bat izatera helduko nintzen. **Zalantzarik** ez daukat. Behar zen guztia neukan: ahots ederra, gorputz **liraina**, lan egiteko gogoa, hamaika asmo, lagun onak... baina **maitemindu** egin nintzen. Eta dena utzi nuen, maitasun haren truke.

Hain ahots ederra, hain gorputz liraina, hainbeste lan egiteko gogo, asmo gutxi eta lagun onik ez neukanean, saiatu zen bera ni berriro bideratzen. Maitasunaren truke berriro ere. Beranduegi zen, ordea, eta ni oso pertsona **argia** naiz, eta ezinezkoa dena, ezinezkoa dela ikusten dut.

Guk elkarrekin jarraitzea bezala. Astelehenean prexko-prexko deitu zidan, bilera espero baino gehixeago luzatuko zela eta asteazkena arte «**zoritxarrez**, maitea» ezingo zela etorri esateko. Igandeko haserrea **baretuta** neukan ordurako, eta bera ere lasai egoteko erantzun nion. Lanaz ez nion ezer galdetu, bizitza pribatua eta publikoa bi mundu diferente direla dioten horietakoa bait da. Dioen guztia segurtasun osoaz esaten du, inolako zalantzarik gabe, irribarre erdi-**inozo**, erdi-**zuri** batekin.

Eta nik dena prest daukat. Ate hortatik sartzen den bezain pronto esango diot dakidana: Kanarietako hondartza batean ikusi nuela **adats** eder bat **laztantzen**, eta niri gehiago gezurrik ez didala esango. Nere bizimodua berriro antolatu nahi dudala eta horretarako ez dudala haren laguntzarik behar. Eta orduan, igoal, tiro bat botako diot.

Baina atzo hotsegin zidan berriro, beste astebetean ere ezingo duela etorri, «Ez dakit **jasango** dudan hainbeste denboran zu ikusi gabe, **laztana**», eta beldur naiz, astez aste **Eguberriak** ez ote zaizkigun gainera etorriko.

Eta orain, pentsatzen jarrita, nola esplikatu behar dit, hainbeste denboraz, **bulego** ilun baten barruan lanean aritu ondoren, gorputz guztian daukan kolore beltza nondik datorkion? Aitzakia ona **bilatuko ahal du**! Ez naiz hain erraz konbentzitzen den horietakoa! ❑

Arantxa Iturbe

AHALEGIN.– *Eginahala, saioa. Esfuerzo.*
ZE.– *Bada. Pues.*
JELOSKOR.– *Celoso/a.*
LOTSA-IZPI.– *Lotsa apurra edo piska.*
EGINBEHAR.– *Zeregina, lana.*
ITZULI.– *Bueltatu.*
EDERRA JARTZEN ZEN.– *Oso haserretzen zen.*
ZALANTZA.– *Duda.*
LIRAIN.– *Ederra, bikaina.*
MAITEMINDU.– *Enamorarse.*
ARGI.– *Ernea. Listo/a.*
ZORITXARREZ.– *Tamalez, zorigaitzez.*
BARETU.– *Lasaitu.*
INOZO.– *Xaloa. Ingenuo.*
ZURI.– *Falso, hipócrita.*
ADATS.– *Cabellera.*
LAZTANDU.– *Ferekatu. Acariciar.*
JASAN.– *Nozitu, pairatu.*
LAZTAN.– *Maitea, kutuna.*
EGUBERRI.– *Navidad.*
BULEGO.– *Ofizina.*
BILATUKO AHAL DU !.– *¡ Ojalá encuentre !*

KONTXU ODRIOZOLA: «NIK EZ DAKIT IRRATIRIK GABE EGOTEN»



❸Jende askok eta askok antzerki-arloan gurean izan den lanik **arrakastatsuenean** ezagutu du Kontxu, «Ama begira zazu» antzeslanean alegia. Nolako barreak, nolako **algarak**! Abendurako **hitz emanda** daude zenbait lekutan. Hainbesterainokoa da jendearen antzerki-lan hau ikusteko gogo eta **grina**.

Gogo eta grina bera zuen **umetan** Kontxuk Azpeitira «Komedianteak» etortzen zirenean: «Nik joan egin nahi izaten nuen, baina aitak eta amak



Lan honetan garrantzizkoa da dotore egotea.

ez zidaten uzten. Orduan auzoko bat egiten zen nire **arduradun**: «Ramona, lasai! -esaten zion amari- nik eramango dut haurra eta nik ekarriko dut». Anttonik aulkia hartzen zuen, eta ni eserita egoten nintzen. Baina ez zidaten bukatu arte egoten uzten... Akordatzen naiz batzuetan izugarrizko pena ematen zidatela **antzesleek**, baina beste batzuetan izugarrizko enbidia! Eskolan, mojetan, Azpeitiko Miserikordiako Eskolan ikastaro-bukaeran egiten zituzten halako zartzuela batzuk eta dantza, abestu, poesiak irakurri egiten genituen, dena erdaraz noski! Maiatzeko Lorak zirenean, elizan **aldarera** igo eta bertsoa kantatu behar Ama Birjinari. Horretan ere ibiltzen nintzen. Beraz, esan daiteke gazte-gaztetatik ibilia naizela antzerkian».

Zinearekin liluratuta

Zortzi-bederatzi-hamar urterekin zinearekin liluratuta zeuden Kontxu eta Kontxuren lagunak: «Baina izugarria zen. Baina denak geunden liluratuta, musikal amerikanoak eta, Fred Astaire eta... **Haria** ez genuen **jasoko**, baina batek zerbait ulertzen zuen, beste batek beste zerbait eta horrela egiten ginen hariaren jabe. Aste guztian aritzen ginen pelikula komentatzen, eta ikusi ez zuenari kontatzen noski!

ARRAKASTATSU.– *Arrakasta+tsu. Exitoso. -TSU atzizkiak ugaritasuna edo oparotasuna adierazten du. Adibidez: gogatsu, adoretsu, alaitsu...*
ALGARA.– *Carcajada.*
HITZ EMAN.– *Agindu. Prometer.*
GRINA.– *Zaletasuna, gura, desioa.*
UMETAN.– *Haurtzaroan, umea zenean.*
ARDURADUN.– *Erantzule. Responsable.*
ANTZESLE.– *Antzes(tu)+le. Actor teatral. -LE atzizkiak egilea adierazten du. Adibidez: edale, begirale, erosle...*
ALDARE.– *Altar.*
LILURATU.– *Deslumbrar.*
HARI.– *Hilo.*
JASO.– *Ulertu, aditu, hartu.*



«Hiru seme-alaba ditut; kritiko zorrotzak».

Herri batek, nahiz eta gustatu, erabat mugatzen zaitu»

Gaur egun ere askotan joaten da zinemara: «Orain asteburu guztiak beteta ditugu eta ez dut zinera joateko **astirik** izaten, eta astegunetan joaten naiz... Ikusi ditudan azkenak? "El club de los poetas muertos" "Delitos y Faltas"... Telebista geroz eta gutxiago ikusten dut. Garai batean ikusten nituen pelikulak telebistan, baina orain ezin dut, ez dakit zer den, formatoa edo, ezin kontzentratua edo, eta pena ematen dit, e! Eskulana ere asko gustatzen zait; dibujatzea, hori ikasi behar dut. Konturatzen naiz gauzak ez ditudala behar bezala dominatzen, eta ikasketa batzuk behar ditut. Nire marrazkiak ikusi dituztenek esan didate esku ona dudala. Dekorazioa ere **atsegin dut**; ez dut ezer egiten, baina... Aulki bati kolorea kendu eta beste bat jarri, landare-mundua, muebleak aldatu, traste zaharrak konpondu... Ezin naiz geldi egon. Beti ditut hiru bat eskulan bukatu gabe eta, ze gogoa daukadan, bati edo besteari heltzen diot. Musika ere gustatzen zait, irakurketak... Lehen, gaztetan, eskura iristen zitzaidan guztia irakurtzen nuen, den-dena, zine-munduko "Fotogramas", baina baita "Zeruko Argia" ere. Irratia ere gogokoa dut. Goizean jaiki eta irratia pizten dut, Euskadi Irratia, Herri Irratia, **aldatzen** joaten naiz. Nire lagunik haundienetako bat da irratia. Nik ez dakit irratirik gabe egoten. Ohean banago ere irratia entzuten dut. Gero irakurri pixka bat argia itzaltzeko; eta, lorik egin ezin badut, telebista entxufatu eta horrekin seguru! Eta ordu horretan tenisa badago, hori neretzat erregalo bat da, erretransmititzeko **era** hori: "No!; tan, tan, tan... Silencio, por favor!"...»

Jatea ere atsegin du Kontxuk: «Urtetan sartu ahala konturatu naiz jatea gauza inportantea dela...». Baina antzerkiak eta norberak ezaugarri fisikoak zaintzea eskatzen du: «Beti gizen ikusten dut neure burua antzerkian. **Erretzeari** ere **utzi** diot, hiru urte daramatzat erre gabe, baina ez nuke esango oraindik **gainditu** dudanik. Ez erretzea oso inportantea da **eztarriarentzat** eta **birikentzat**». Ahotsa zaindu beharra dago, beraz: «Nik uste orain iritsi zaidala dudan edadeari dagokion ahotsa. Nik hamabost urte nituenean orain-go ahotsa bera nuen».



«Hau ez da berez nire koadrila». Lurrean eskuinean.

ASTI.– *Beta, denbora.*
ATSEGIN IZAN.– *Gustokoa edo gogokoa izan.*
ALDATU.– *Cambiar.*
ERA.– *Moldea, modua.*
ERRETZEARI UTZI.– *Dejar de fumar.*
GAINDITU.– *Garaitu. Superar.*
EZTARRI.– *Garganta.*
BIRIKA.– *Pulmón.*



Asko gustatzen zaizkio haurrak Kontxuri, askotan eramangaitzagoak omen dira gurasoak.



«Hauxe izan zen nire lehen antzeslana». Eskuinean amantalarekin.

Baserriko lana ez zaio asko gustatzen Kontxuri

Azpeititik Donostiara

«Ni urbanoa naiz, Azpeitiko kalean jaioa, baina opor guztiak baserrian egin ditut. Nik badakit zer den **idien** aurretik neguan **itulan ibiltzea**, eta abuztuan belarra biltzea zer den, eta ardiak zaintzea... Nik baserriko **oroitzapenak** ez ditut hain onak... Ian asko! Baserria gustatzen zait, baina lau egun pasatzeko, obligaziorik gabe. Nik badakit ez naizela joango bizitzera Donostiatik Azpeitira. Azkoitiko **Kristau Ikasbideko** ibilaldiarekin Donostiara etorri ginenean... izan zen! **Maiteminduta gelditu** nintzen: "Ni Donostiara etorriko naiz bizitzera". Gero konturatzen zara ez dela hainbesterako, hau herri handi bat da, Azpeitia, baina handian... Herri batek, nahiz eta gustatu, **erabat** mugatzen zaitu. Anonimatoa ere gustatzen zait, ez zait batere axolarik kalean ibili eta inork ez ezagutzea». Baina batzuetan ezagutzen dute: «Begiratu egiten dizute: "Hau ote da, ez ote da?". Bi edo hiru badira, ausartena etortzen zaizu: "Zu ez al zara BAI HORIXEn ateratzen?". Bai. Eta aprobetxatu egiten duzu galdetzeko: "Ze, gustatu zaizue?"».

Ikastolan Ian eta Ian

Azpeititik Donostiara Ian egitera etorri zen, Kontxu gaztea zela hasiak ziren ikastolak: «Gazte batzuen ideia eta guraso batzuena izan zen Azpeitian ikastola baten **beharra** zegoela, eta nire bizitzako zati handi bat hor **kokatzen** dut, ikastoletan. Aurrena Donostiara etorri, Donostiatik Errenderira, urte bete praktikak egitera, gero Azpeitira itzuli, ikastola ireki beste lagun batzuekin batera. Orduan antzerkia alde batera utzita nuen pixka bat, baina barru-barruan beti neukan antzerkirako grina. Herri Irratian egiten genituen gidoiak eta antzestu, 18-19 urterekin. Antzerki-mundutik urruti ez naiz behin ere ibili... Bitartean ezkondu, umeak ere izan nituen, 17 urte ikastoletan ibili naiz. Baina nere bizitza

IDI.– *Buey.*
ITULAN IBILI.– *Soro-lanetan idien aurrean ibili.*
OROITZAPEN.– *Oroitza(tu)+pen. Recuerdo. -PEN atzizkiak ekintza adierazten du. Adibidez: adierazpen, onespen, aurrerapen...*
KRISTAU IKASBIDE.– *Katekesia. Doctrina Cristiana.*
MAITEMINDUTA GELDITU.– *Quedarse prendado o enamorado.*
ERABAT.– *Zeharo, arras.*
BEHAR.– *Premia. Necesidad.*
KOKATU.– *Lekutu. Ubicar.*



Herriko ekintzetan parte hartzen duten horietakoa da Kontxu.



«Errezilen nere senarra eta bere senideekin batera baserri bat daukagu».

aurrera zihoan bezala, antzerkirako grina geroz eta handiagoa zen. Azpeitian amateur-taldetan egindako urte haiek ez ziren nahikoa. Antzerti-eskola **sortu** zenean, sartzea pentsatu nuen. Etsaminak egin eta beka bat eman zidaten. Hiru urtetan ikasketak egin nituen. Irakasle gogorrak izan genituen, eta ondo etorri zitzaigun. Nik Antzertira sartu baino lehen ez nuen sekula hainbeste lan egin».

Azpeititik Azkoitira

Sonatuak dira bi herri hauen arteko «jolasak, **txantxak**, ezinikusiak» edo dena delakoak, eta Kontxuk ere kontatu zigun azpeitiarrek azkoitiarrei egindako **barrabaskeria** bat, nahiz eta badakien agian azkoitiarrek beste era batetan kontatuko dutela gertatua: «Nik ez nuen ezagutu hura, baina ezagutu nuen koadrila. Azkoitiko festetan, Andra Maritan, eguerdian, herri askotan bezala, kontzertua izaten da. Gauean jarri zituzten su-festatarako suak. Azpeitiar koadrila bat joan zen kontzertura eta su horiek piztea okurritu zitzaien, eta kontzertuaren erdi-erdi-erdian hasten dira su horiek, suzko errueda dzi dzi dzi!!! Eguerdirako, ordu baterako, su guztiak bukatuta. Orduan aguazila etorri eta...: "Baina, baina, zergatik egin duzue hori? **Ze** Pamplonatik beste lanik gabe gizon bat ekarri diagu horiei su ematera...". Grazia egiten dit, ja ja ja! Barka nazatela azkoitiarrek. Baina azkoitiarrak ere gaixtoak dira, e!»

Azken antzeslan honek ere, besteak beste, horregatik izan du **arrakasta**, herriko gertaerak eta azaltzen direlako, oso da bizia, hizkuntza ere herrikoa du: «Nik Azpeitin eta nire edadekoekin hika hitz egiten dut. Hor ikusten dut, hirietan... euskaldunberriak... galdu da, galdu da, galdu da! Badago maixu gazteengan eta halako borondatea hika hitz egiteko, baina desberdina da. Azpeitin pentsatu ere euskaraz pentsatzen dugu, ez dago hitzak bilatzen ibili beharrik. Hori gure antzerki honetan ikusten da». ❑

Aste guztian aritzen ginen pelikula komentatzen»

SORTU.– *Crear.*
TXANTXA.– *Broma.*
BARRABASKERIA.– *Bihurrikeria. Travesura.*
ZE.– *Bada. Pues.*
ARRAKASTA.– *Exito.*

HITZ GEZIDUNAK



ESKOLA-TRESNA / EZ EUSKALDUN

BAKAR-TASUNA / * IZENA

ERNE ! / BIZKAIKO HERRIA

ONTZAT HAR / MOMENTUAK

OSO ONA / EMAZTEDUN

ERBIOA / BOKALA

GASTEIZ-TARRAK / AIZTOA

ZALETU / BEROTZEKO TRESNA

BELARDIA / NEONA

ZOROA

DAGO / * DEITURA

SUARI DARIO / BARAZKIAK

HEGAZTI BELTZ / LASAI

BARAZKI-MOTA / BERILIOA

RÖNTGEN / POTASIOA

EGOKI / KOPETILUN

(ERREP.) TXORI-MOTA / NAHIA

BAXENAFA-RROAKO HERRIA / ZERO

H E L E T A

BOKALA / HAUXE DA

ABEREEN-TZAKO JANARI / URANIOA

GAISOAK

JAINKO EGYPTIARRA / NAFARROA-KO HERRIA

BERO EMAILEA / BALDIN-TZETAN

BOKALA / NAFARROAKO AUTOETAN

EGILE ATZIZKIA / GURE GAINE-KO ESTALKI

ZINTZO / JOAN DEN URTEAN

GALDE-TZAILEA / BAKAR

OLAGIZON / BI GEHI BI

HARRERA ON / IDI, HITZ ELKAR.

ITALIAKO TELEBISTA / KONTSO-NANTEA

OPERA-KANTA / BOKALA

KAREZ ZURITUAK

BOST AXOLA !

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu.

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1.- Joan den urteko.
2.- Beteak.
3.- Zure-zure.
4.- Untziaren ertz.
5.- Haragiak.

JEROGLIFIKOA

Gipuzkoako herria



π

ZALDIKO MALDIKO

Xakeko zaldunaren mugimenduez baliatuta eta nabarmendu egin den silabatik abiaturik, osa ezazu herri-esaera jator hau.

KO	A	KO	ZE	RI	DEN	IO
RI	RI	EU	RI	ZA	LA	TAN
AN	NE	RRE	E	LA	AU	AL
NA	RO	NE	RRE	FE	TA .	IAN

SOLUZIOAK



ZALDIKO MALDIKO
«Zelaian lanean an den
alterrenari eroriko zaio
aurreneko euri-tanta».


JEROGLIFIKOA
Legaz (-l) -Pi
«Legazpi»

BOST AXOLA !
1.- Iazko. 2.- Aseak.
3.- Zeure. 4.- Karel.
5.- Okela.



HITZ GEZIDUNAK

GAUR ERE GOIZEGI



❷Jon Bergaretxe kantari oiartzuarrak badaramatza urte batzuk musikaren munduan **murgilduta**.

Garai batean AZALA taldearekin lan egin zuen, baina gaur egun **bakarka** kantatzen du, bere kitarra lagun duela. Hala ere, oraingo honetan, bere lehen diskoa plazaratzeko, beste musikarien laguntza izan du.

Gaur ere oso goiz **esnatua** nau;
ordu gutxi eta **lo(g)alea**.
Lehen hanka bat ateratzen det, barruan bero bestea.
Hotz! eta kalean **lanbro** zuria.

Gaur ere oso goiz esnatua nau,
despertadore **zakarra**!
Muturra busti, bizarra moztu, galtzak eta bi zapata.
Hotz! eta kalean lanbro zuria.
Oraingoz behintzat jaso nahi nuke gaur daukaten **zalantza**.
Atzo, gaur eta bihar ere; honek ez du berririk,
hau azken eguna izan litekeela pentsatzen det,
baina, halere, oraindik bizi nahi det.

Goizean gauez kalean nago oraindik ametsak kontuz,
argi batzuek, oraindik esna auzoko neska gaztea.
Horra! autobus zaharraren ke beltza.
Egunkari beroaren berri hotzak. Jendearen begi
zorrotzak, kunplitutzera gaurko otoitzak.
Honek ez du **berririk**, hau azken eguna izan litekeela
pentsatzen det, baina, halere, oraindik bizi nahi det.

MURGILDU.– *Sartu, barneratu.*
GARAI BATEAN.– *En cierta época, anteriormente.*
BAKARKA.– *Bakarrik. Sólo.*
ESNATU.– *Despierto.*
LOGALE.– *Logurea, lo egiteko gogoa.*
LANBRO.– *Lainoa. Niebla.*
ZAKAR.– *Lakarra. Aspero.*
MUTUR.– *Hocico, Morro.*
ZALANTZA.– *Duda.*
ZORROTZ.– *Agudo.*
BERRI.– *Albistea. Noticia.*

ARRAUTZIK GABEKO MAIONESA



❷Maionesak udapartean **makina bat buruhauste** ekartzen ditu. Beroak berehala galtzen du, eta toxi-infekzioak ere sortzen dira. **Irtenbidea**? Arrautzik ez erabiltzea. Arrautzaren **ordez** esnea **erantsiko** diogu.

Osagaiak: litro bat oliba-olio, litro laurden bat esne, 50 cc **ozpinetik** eta gatza.

Ontzi sakon batean ipini esnea eta, piskanaka, olioa erantsi, turmixaz etengabe **eraginez**. Beharrezkoa da turmixa; maionesa hau ezin da **eskuz egin**. Bitartean, beste ontzi batean sutan ipini ozpina. **Irakiten** hastean, olio eta esnearekin batera eragin eta kito. Batzuek, hala ere, ardo zuria (200 cc) ere nahasten diote maionesaren antzeko saltsa honi.

OTORDUETAN URIK EZ



❷Ura osasun-iturri da, baina ez beti. Otorduetan, esate baterako, ez da urik edan behar. Urak **zuku** gastrikoen kontzentrazioa arinduko du eta, beraz, polikiago egosiko da jana **urdailean**. **Badaezpada ere**, otorduen aurretik edan, bost minutu aurretik gutxienez. Bost minututan, ura urdailetik kanpora joango da. Hala ere, gero **egarriak bazaude**, edan piska bat, baina, poliki-poliki eta **xurrupada** txikitan.

FISIKA-LEGEAK SUKALDEAN




❷Fisikak lagundu egiten du sukaldean. **Harrikoa egiten** ari zara eta ezin dituzu askatu **edalontziak**. Barrukoak ez du inolaz ere atera nahi. Bietako bat **txikitzeko** beldurrez zaude. Halako batean, Fisikako lege hura etorri zaizu gogora. Beroak gauzak **zabaldu** egiten ditu; hotzak, berriz, estutu. Horixe!...Beheko edalontzia ur bero-berotan sartu eta goikoa ur hotzez bete. Berehala askatuko dira horrela.

MAKINA BAT BURUHAUSTE.– *Kezka asko. Muchas preocupaciones.*
IRTENBIDE.– *Solución.*
ORDEZ.– *Partez. En lugar de.*
ERANTSI.– *Gehitu. Añadir.*
OZPIN.– *Vinagre.*
ERAGIN.– *Batir.*
ESKUZ EGIN.– *Hacer a mano.*
IRAKIN.– *Hervir.*
OTORDU.– *Comida.*
ZUKU.– *Jugo.*
URDAIL.– *Estómago.*
BADAEZPADA ERE.– *Por si acaso.*
EGARRIAK EGON.– *Tener sed, estar sediento.*
XURRUPADA.– *Trago, sorbo.*
HARRIKOA EGIN.– *Ontziak garbitu.*
EDALONTZI.– *Vaso.*
TXIKITU.– *Hautsi, puskatu. Romper.*
ZABALDU.– *Dilatar.*

JHONY, ITZULI ETXERA!

JHONY MATONEREN BESTE BALENTRIA BAT



BALENTRIA.– *Hazaña.*
ZIRALDOKA JOAN.– *Balantzaka joan.*
GORROTO IZAN.– *Odiar.*
GIZARTE.– *Sociedad.*
NAZKA.– *Narda. Asco.*



AGINDU.– *Hitz eman. Prometer.*

PLANTA.– *Itxura, jitea.*

MENDERATU.– *Dominar.*



HUTS EGIN.– *Fallar.*
ZORO.– *Ero. Loco.*

TANTO.– *Gota.*
NOLANAHI ERE.– *Edonola ere. De todas maneras.*

ZARPAIL.– *Baldarra, traketsa.*
OKER EGON.– *Deskuidatuta egon. Estar equivocado.*

LOA



❸ Logelan **landarerik** baduzu, norabaitera eraman beharko duzu lotara joan baino lehen. Loreak gauean anhidrido karbonikoa botatzen du, eta oxigenoa hartzen. Guk ere oxigenoa behar dugu, noski! Logelan guztientzako adina aire egongo da, baina hobe lorea beste nonbait jartzea. Egunez, ordea, landareak oxigenoa botatzen du, eta komeni da lorez inguratuta egotea.

Lo gaudenean **amets egiten** dugu; beti. Askok uste dute egunez gogor lan egiten badugu, **lo sakona** izango dugula eta ez dugula ametsik izango. Baina hori ez da horrela.

Ametsak **une** desberdinetan egiten dira. Une horietako batek REM du izena. Lo gaudenean lauzpabost aldiz izaten da REM hori. Azken aldiko REMeko ametsak gogoratzen ditugu bakarrik.

Jende askok du **loezina**, hots, atsedena hartzeko behar hainbat lo ez egitea. Zenbat ordu behar ditu, bada, batek lo egiteko? Ezin da ordu-kopuru jakinik esan. Batzuek bost egiten dituzte, eta nahikoa. Gorbachov-ek lau egiten omen ditu. Beste batzuek bederatzi egin, eta ezin ase! Lo-kontu horretan norberaren egoerak du **eragina, nortasunak, urtaroak**, eguraldiak, depresioak, lan-arazoak, **zaratak...**

Denok entzun dugu noizbait izen hau: Sigmund Freud. Psikologo eta psikiatra austriar honek gaisoen ametsak **aztertu** zituen. 1900. urtean Ametsen Interpretazioa idatzi zuen. Freud-en ustez, subkonszientea ametsetan ere **isladatzen** da. Edipo eta Electra-konplexuak ere ikertu zituen. Edipo-konplexua mutikoek dute, eta Electra nexkek.

Freud judua zen, eta, alemaniarrak Austrian sartu zirenean, Londonera ihes egin zuen. Hurrengo urtean hil zen, 1939an.

LANDARE.– *Planta.*
AMETS EGIN.– *Soñar.*
LO SAKON.– *Lozorroa. Sueño profundo.*
UNE.– *Momentua. Momento.*
LOEZIN.– *Insomnio.*
ERAGIN.– *Influencia.*
NORTASUN.– *Personalidad.*
URTARO.– *Urte-sasoia. Época del año.*
ZARATA.– *Zalaparta. Ruido.*
AZTERTU.– *Ikertu. Analizar.*
ISLADATU.– *Errainutu, ispilatu. Reflejar.*

